

METODOLOGIA AKTIBOAK IPUINEN MURGILKETAN IKAS-EGOERA PRAKTIKOA LEHEN HEZKUNTZAN

GRADU AMAIERAKO LANA

Hezkuntza eta Kirol Fakultatea UPV/EHU
2022/2023 Ikasturtea

EGILEA: Moro Ibarra, Miren.

TUTOREA: Ros Martinez de Lahidalga, Iker.

AURKIBIDEA

1.-Sarrera	5
2.-Helburuak.....	6
3.-Marko teorikoa.....	6
3.1.-Metodologia aktiboak	7
3.1.1.-Irakaslearen papera metodologia aktiboetan	10
3.1.2.- Metodologia aktiboak dokumentu ofizialetan.....	10
3.1.3.- Metodologia aktiboen motak.....	12
3.1.4.-Ikas-egoeren oinarriak	14
3.2.- Ipuinen garrantzia haurren heziketan	15
4.-Metodoa	17
4.1.-Ikas-egoeraren diseinua “Ipuinetan murgiltzen”	17
4.2.-Praktikara eraman dudana	28
5.-Proposamenaren ebaluazioa	31
6.-Ondorioak.....	34
7.-Mugak eta hobetzeko proposamenak	35
8.-Hausnarketa.....	35
9.-Bibliografia	37
ERANSKINAK	40

LABURPENA: Hezkuntzak behar dituen aldaketei buruz hitz egiten denean, ezinbestekoa da hezkuntzaren egitura zaharkituak hausten dituzten praktika berrien beharraz hitz egitea, eta prozesu horretan, metodologia aktiboen garrantzia azpimarratzen da. Lan honetan praktika horien onurak baloratu nahi dira, bereziki gamifikazioan, ikaskuntza-paisaian, tutorizazioan eta ikaskuntza kooperatiboan oinarritutakoak. Metodologia horietatik abiatuta, ikas-egoera bat diseinatu da, eta horren zati bat lehen hezkuntzako hirugarren zikloan gauzatu da. Ikas-egoera horren oinarri nagusia ipuinak izan dira, hezkuntzan duten garrantziagatik eta eskaintzen duen balio askotarikoagatik. Prozesu guztiaren emaitzak lortzeko, hainbat ebaluazio- eta autoebaluazio- teknika erabili dira, besteak beste, ebaluazio dianen garrantzia azpimarratu behar da, emaitzak azkar eta modu bisualean jasotzeko teknika bikaina baita. Azkenik, lortutako emaitzek erakutsi dute metodologia aktiboak egokiak direla esparru kognitiboan, emozionalean eta pertsonalean hobekuntza lortzeko.

Hitz gakoak: gamifikazioa, adimen emozionala, ikaskuntza kooperatiboa, tailerrak, arazoetan oinarritutako ikaskuntza, proiektuetan oinarritutako ikaskuntza.

RESUMEN: Cuando se habla de lograr un cambio en educación, es inevitable mencionar la necesidad de nuevas prácticas que rompan con las estructuras obsoletas de la educación tradicional, y es aquí donde las metodologías activas hacen su gran aportación. Este trabajo pretende valorar los beneficios de estas prácticas, más específicamente centrándose en la gamificación, los paisajes de aprendizaje, las tutorizaciones y el trabajo cooperativo. A partir de estas metodologías se ha diseñado una situación de aprendizaje y se ha llevado a cabo parte de ella, en el tercer ciclo de educación primaria. En esta situación de aprendizaje los cuentos han sido la base principal del trabajo, por su relevancia en el ámbito educativo, ya que es una herramienta muy poderosa y polivalente para trabajar en el aula. Los resultados se han obtenido poniendo en práctica diferentes técnicas de evaluación y autoevaluación, haciendo hincapié en las dianas de evaluación por ser una técnica que permite la recogida de los resultados de forma rápida y visual. Finalmente, los resultados obtenidos han demostrado la adecuación de estas metodologías activas para conseguir una mejora tanto en el ámbito cognitivo, como en el emocional y personal.

Palabras clave: gamificación, inteligencia emocional, aprendizaje cooperativo, talleres, aprendizaje basado en problemas, aprendizaje basado en proyectos..

ABSTRACT: When talking about obtaining a significant change in education, it is inevitable to mention the need for new practices that break with the obsolete structures of traditional education, and there is where active methodologies make their great contribution. This project

intends to evaluate the benefits of these practices, more specifically focusing on gamification, learning landscapes, tutoring and cooperative work. Based on these methodologies, a learning situation has been designed and part of it has been carried out in the third cycle of primary education. In this learning situation, stories have been the main basis of the work, due to their relevance in the educational field, as they are a very powerful and versatile tool to work with in the classroom. The results have been obtained by putting into practice different evaluation and self-evaluation techniques, with emphasis on the evaluation targets, giving that it is a technique that allows the results to be collected quickly and visually. Finally, the results obtained have demonstrated the suitability of these active methodologies to achieve an improvement not only in the cognitive sphere, but also in the emotional and personal spheres.

Keywords: gamification, emotional intelligence, cooperative learning, workshops, problem-based learning, project-based learning.

1.-Sarrera

XXI. mendeko hezkuntza gizarte berriaren aldaketetara moldatzen saiatzen ari da. Urteak eta urteak daramatzagu entzuten hezkuntzak aldaketa sakon bat behar duela benetan gizarte hobea lortzeko. Eskolak gero eta anitzagoak dira eta ikaskuntzak oraindik gehienetan, betiko metodologia tradizionala eskaintzen du, non irakasleak oraindik informazioa transmititzen duen eta ikasleak jasotzen saiatzen diren era pasiboan eta errepikakorrean. Gainera, metodologia akademiko horietan edukiek lehentasun osoa dute eta baloreak, emozioak, artea edo kirolak azken lekuan daude.

Bide horretatik jarraituz gero, ez gara gai izango aniztasunari aurre egiteko eta ez ditugu umeak osotasunean heziko. Gaur egun, ikasleek taldean lan egiteko, hausnarketarako eta kritikarako gaitasunak izan beharko lituzkete. Ikasle aktiboak behar ditugu, mundu errealean sortu ahal diren arazoei irtenbide desberdinak eman ahal izateko. Gero eta azkarrago aldatzen den mundu honetan, ezinbestekoa da hezkuntzaren aldaketa, eta prozesu horretan, metodologia aktiboek paper nagusia joko dute.

Metodologia aktiboen proposamenak askotarikoak dira, haien artean: ikaskuntza kooperatiboa, proiektuetan oinarritutako ikaskuntza, gamifikazioa edo ikaskuntza-paisaiak besteak beste. Gradu amaierako lan honetan hezkuntza-sistemaren inguruan hausnartzeaz aparte, gaur egun ezagutzen diren metodologia aktiboen abantailak eta horietako batzuk ikasgelan praktikara nola eramán garatuko da. Horrela, metodologia horiek dauzkaten garrantziaz eta funtzio ezberdinez jabetuko gara, arlo emozionala, autonomia, sormena, motibazioa, autoestimua, irudimena, elkarlana eta aniztasuna lantzeko aukera ezin hobea eskaintzen dutelako.

Metodologia aktiboak lantzeko ipuinetan oinarritutako ikas-egoera bat diseinatu da. Zalantzarik gabe, ipuinak oso tresna pedagogiko erakargarriak eta egokiak dira, ikasteko giro magikoa sortzen laguntzen baitu, umeen irudimena eta sormena lanean jarriz, mundu erreala eta irudimenaren munduarekin lotuz. Horretaz gain, oso lagungarriak dira adimen emozionala lantzeko, baloreak finkatzeko eta ikasleen ezagutzak edo interesak handitzeko. Gainera, eguneroko gatazkak, beldurrak edo poz-egoerak lantzeko baliabide paregabea dira, hizkuntza-trebetasuna eta irakurketa-idazketa prozesuan izan dezaketen garrantzia ahaztu gabe.

2.-Helburuak

Lan honek hainbat helburu ditu, alde batetik, metodologia aktibo ezberdinak ezagutzea, eta horien garrantziaz jabetzea, bestetik, horiek ikasgela batera nola moldatu eta praktikara eramaten erakustea.

Hasierako proposamena orokorra da, eta hortik abiatuta, zati bat garatu da lehen hezkuntzako hirugarren zikloan, ikasgela horretan ikasleek daukaten arazo batean oinarrituta. Modu horretan, metodologia aktiboak ikasleen ikaskuntzan dituzten onurak egiaztatzen dira. Gainera, ipuina tresna pedagogiko gisa proposatzen da, lehen hezkuntzako seigarren mailan esku hartzea burutzeko.

Lan honetan ditudan helburu zehatzak hauek dira:

- 1.- Metodologia aktiboak eta horien onurak plazaratzea.
- 2.-Ipuinek umeen ikaskuntzan eta tresna pedagogiko modua daukaten garrantziaz jabetzea.
- 3.- Lehen hezkuntzan metodologia aktiboak praktikan jartzeko proposamen bat aurkeztea eta emaitzak jasotzea.

Proposamena burutzeko, metodologia aktiboetan oinarrituta dagoen ikas-egoera bat sortu da. Metodologia ezberdin horien artean, hauek: proiektuetan eta arazoetan oinarritutako ikaskuntza, ikaskuntza kooperatiboa, tailerrak, elkarren arteko ikaskuntza, gamifikazioa... Horrela, ikasleak gai izango dira hausnarketan, ikaskuntza autonomoan eta parte-hartze aktiboan oinarritutako konponbideak planteatzeko eta balizko egoera erreal batean edo egoera kritikoen aurrean erantzuteko. Egitura desberdinetako jarduerak proposatu dira, batzuk ikasleen motibazioa bultzatzeko eta umeen beharrak eta interesak asetzeko, eta beste batzuk elkarlana, autonomia eta autoestimua garatzeko. Halaber, irakurmena, pentsamendu kritikoa eta ikaslearen hausnarketarako trebetasuna lantzeko edo ahozko eta idatzizko adierazpena hobetzeko (Caro García, 2020).

3.-Marko teorikoa

Atal honetan, lanaren oinarri izango diren zenbait alderdi teorikoak jorratzen dira, horretarako, zenbait adituen iritziak jaso dira. Metodologia aktiboen definizioetan, aurrekarietan, ezaugarrietan, oinarrietan edo faseetan sakontzen badugu, esparru teorikoa ezagutzeaz gain, esparru praktikoarekin duten harreman zuzena islatzen da. Aldi berean, irakaslearen rola azpimarratzen da, metodologia aktiboak praktikan jartzeko orduan ezinbestekoa delako. Gainera, metodologia aktiboak aipatzen dituzten hainbat lege edo dokumentu ofizial jaso dira. Azkenik, proposatutako ikas-egoera ipuinetan oinarritzen denez, ipuinek hurrekin lan egiteko tresna pedagogiko gisa duten garrantzia aztertu da.

3.1.-Metodologia aktiboak

Gaur egun, hezkuntzarekin zerikusia duena, ez ditu soilik profesionalak eta gurasoak kezkatzen, baizik eta gizartea osoa. Mundua abiadura bizian aldatzen ari da azken urteotan, baina hezkuntza-politikek, berriz, oso kontserbadoreak izateko joera izan dute.

Mark Prenskysen (2001) iritziz, "hezkuntza-sistema ez zen sortu gaur egun dauzkagun ikasleentzat". Eskolari kostatzen ari zaio egoera sozial eta ekonomiko berriei egokitzea. Gizarte berriak metodologia zaharkituen praktikak salatzen ditu, eta ikasleak prozesuaren parte gisa hartzen dituen hezkuntza baten alde egiten du. Hezkuntzak sormena baloratzen hasi behar da, akatsak zigortzeari utziz eta nahitaezko azterketei eta emaitzak neurtzeko obsesioari amaiera emanez (García, 2017).

Metodologia aktiboetan zentratu aurretik, denboran atzera egin behar da haien jatorria ezagutzeko. Metodologia aktiboen aurrekaria "Eskola Berria" izan zen, XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran sortutako mugimendu pedagogikoa. "Eskola Berria" garai hartako irakaskuntza-sistema tradizionalari erantzuteko sortu zen. Mugimendu pedagogiko horrek haurra eskolan ikusteko modua aldatu zuen, ikasleari garrantzi emanez eta irakasleari paper nagusia kenduz. Mugimendu hori Europa osoan zabaldu zen eta Estatu Batuetara heldu zen. Mugimendu horretako ordezkatzailerik nabarmenetako batzuk hauek izan dira: Ferrière, Dewey, Montessori, Cousinet, Freinet, Piaget edo Wallon.

Narvaez-en (2006) aburuz, "Eskola Berriaren" ekarpen handienetako bat irakasleen eta ikasleen arteko rol aldaketa izan zen. Eskola tradizionalerako irakaslearen funtzioa irakastea zen eta eskolan ematen zen hezkuntzaren mamia ezagutzaren transmisioan oinarrituta zegoen (Ayúcar eta Bereziartua, 2019). Eskola Berriaren agerpenari esker, hezkuntza-paradigma aldatu egin zen eta horrek metodologia aktiboen agerpena bultzatu zuen.

Benetako aldaketa hori lortzeko eta ikaskuntzaren bide egokia aukeratzeko Freirek (1997) esaten zuen moduan, argi izan behar dugu ikaskuntza prozesuan arreta jarri behar dugula eta pertsonak gure ardatzak izan behar direla. Hau lortzeko metodologia aktiboak tresna ezin hobeak dira.

Metodologia aktiboak ikasleak esku-hartze pedagogikoaren erdigunean kokatzen ditu, bere ikaskuntza-prozesua eraikitzeko jarrera aktiboa izateko aukera emanez. Prozesu horretan, planifikatutako edukiak eskuratzeaz gain, ikaslea trebetasunak, teknikak, prozedurak edo jarrera guztiak aplikatzeko gai izan behar da, bizitza errealeran eraman daitezkeen arazoak konpontzeko, hazkunde pertsonalerako eta gaur egungo gizartean erabateko partaidetza izateko eta beharrezkoak diren funtsezko gaitasunak eta trebetasunak garatzeko (Márquez eta García, 2022).

Metodologia didaktiko horien arabera, ikaskuntza-prozesua garapen konstruktiboa da, eta ez hartzailea. Psikologia kognitiboak argi erakutsi du memoriaren egitura

garrantzitsuenetariko bat bere elkartzegitura dela. Ezagutza erlazionatutako kontzeptuen sareetan egituratuta dago, eta sare semantikoak esaten zaie. Informazio berria lehendik dagoen sarera egokitzen da. Horrek esan nahi du, ikaskuntza prozesu gisa ulertzen dela, eta ez soilik informazioa jaso eta metatzeko prozesu gisa (Glaser, 1991).

Metodologia aktiboak hiru oinarri orokorretan sailka daitezke:

- 1.-Ikaslea bere ikaskuntza prozesuaren protagonista aktiboa da.
- 2.-Ikaskuntza soziala da. Ikasleek askoz gehiago ikasten dute haien arteko harremanetatik edo elkarreraginetik, azalpenetatik baino.
- 3.-Ikaskuntzak esanguratsuak izan behar dira. Ikaskuntzak errealista, bideragarria eta konplexua izatea eskatzen du, ikasleak eduki horri garrantzia eman dezan. (Bernal eta Martínez, 2009).

Zenbait autoreek metodologia aktiboak pedagogia berritzaile gisa aipatzen dituzte, baina egia esanda, metodologia horietako batzuek ehun urteko historia baino gehiago dituzte. Gainera, eskola batzuk berritzaile izendatzen dira arbel tradizionalaren ordean, arbel digitala jartzeagatik, dinamika berdinekin jarraitzeko bada ere. (García, 2017).

Batzuek uste dute metodologia aktiboak eta metodologia tradizionalak aurkako terminoak direla. Metodologia tradizionalak zaharkituztat hartuta eta aktiboak berritzaile gisa. Baina hori ez da guztiz egia. Metodologia tradizionaltzat hartzen dugu emaitzetan oinarritutako metodologia, non estrategia didaktikoen sekuentzia lineal bat jarraitzen duten, irakaslearen eta testuliburuaren transmisio edo azalpenenarekin hasten dena, eta ikasleek buruz ikasitako amaierako ebaluazio batekin amaitzen dena (Bravo Lucas et al, 2020).

Metodologia aktiboak berriz, gure hezkuntza-sisteman kontzeptu berritzaile gisa ikusten da, gaur egun hezkuntza komunitatearen barruan garrantzi handia hartu dutelako. Baina XX. mendearen hasieran, bazeuden hainbat autorek honi buruz hitz egiten zutenak. Hain zuzen ere, Deweyek (1962) proposamen metodologiko ireki bat planteatzen zuen, ikaslearen protagonismoan oinarritua. Autore horrek ikaskuntza-prozesua bost fasetan oinarritzen zuen, eta oraindik ere, metodologia aktiboak lantzerakoan proposamen horren faseak jarraitzen dira:

- Ikaslearen egungo esperientzia errealean bati buruzko gogoeta.
- Esperientzia horretatik aurrera sortutako arazo edo zailtasunen bat identifikatzea.
- Eskuragarri dauden datuak ikuskatzea, eta irtenbide bideragarriak bilatzea.
- Soluzio-hipotesia formulatzea.
- Ekintza-hipotesia egiaztatzea.

Metodologia aktiboetan hezkuntzaren beharrezko abiapuntua haurren premiak dira, baina ondo dakigu premia horiek ez direla bakarrik janaria, higiena edo hezkuntza. Horretaz aparte, ingurunearekin harremanetan jartzeko jarduerak ere garatu behar dira, arriskuak

saihesteko, akatsak modu onean konpontzeko, atsedenaldia izateko, onartua sentitzeko eta abar. Azken finean umea bere esentzia osoan ulertu behar da.

Ikaslea ez da ezer ez dakien subjektutzat hartzen, aitzitik, bere interesak, motibazioak eta erritmoak errespetatu egiten dira, haur izateko denbora ematen zaio. Adibidez, lehen urteetan joko librearen ezinbesteko tresna da ingurua aztertzeko, egoerak birsortzeko eta sormena garatzeko (García, 2017).

Honekin batera, esan dezakegu, hezkuntza pertsonalizatuagoa behar dugula, umeen interesak, premiak eta beharrak bermatuz. Horri esker, pertsona heztea, pertsona gisa heztea, pertsona osoa heztea eta pertsona bakoitza heztea lortuko genuke. Ikasleei ikaskuntzaren kontrola ematerakoan, haien ikaskuntza zuzentzeko aukera ematen zaie, eta horretan datza pertsonalizazioa. Horrek aukera askotarikoak ematen ditu ikasleak gelan parte hartzeko eta autonomia garatzeko. Horretarako, aukera ezberdinak eskaini behar zaizkie, ikasleen gaitasunaren, egoeraren eta ahalmenaren arabera (Bernardo eta Javaloyes, 2015).

Normalean, metodologia aktiboak erabiltzen direnean, jarduerak modu egituratuan eta aukera ezberdinetakoak aurkezten dira, ikasleen motibazioan laguntzeko eta ikasleen beharrezko gaitasunak garatzeko. Gainera, jarduerak diseinatzeko orduan, ikasleen artean egon daitezkeen ezberdintasunak kontuan izaten dira (Márquez eta García, 2022).

Horri lotuta, aipatzekoa da hezkuntza-sistema benetan eraldatzeko ez dela metodologia bakar bat jarraitu behar. Aldaketa hori lortzeko metodologia ezberdinen uztarketa beharrezkoa da. Horregatik, metodologia jakin bat aukeratzea edo hainbat metodologia konbinatzea, kasuz kasu, hainbat faktoreren mende egoten da, hala nola, lortu nahi diren helburuak, testuingurua, ikasle-kopurua, baliabideak edo eskura dagoen denbora (López Rodríguez, 2017).

Ezagupenen transmisioa, orain arte eskolaren ia helburu bakarra izan dena, garrantzia galtzen ari da, eta pentsatzeko gaitasunak edo trebetasunak eta baloreen lanketa indarra hartzen ari dira (Bernardo eta Javaloyes, 2015). Eskola tradizionalak orain arte emozioak eta sentimenduen lanketa oso baztertuta izan ditu. Berriz, metodologia aktiboak adimen emozionalak bereziki kontuan izaten ditu. Bisquerraren (2005) arabera hezkuntza emozionala etengabeko hezkuntza-prozesua da, eta bizitza osoko etengabeko prestakuntzan egon behar da.

Argi dago umeen emozioak zaindu eta landu behar direla, sor daitezkeen frustrazio egoerak konpontzen jakin dezaten. Céspedesek (2013) argi adierazten du, eskolan umeak emozionalki babestuak sentitu behar direla. Haurrak baldintzarik gabe onartuak, entzunak, maitatuak, babestuak eta errespetatuak sentitu behar dira.

Adimen emozionala garatzea funtsezkoa da gizakiarentzat, emozioak eta sentimenduak pertsonen egunerokotasunaren parte garrantzitsua baitira. Adimen emozionalak eguneroko bizitzan sortzen diren arazoak eta zailtasunak modu autonomo eta osasungarrian konpontzea

eta aurre egitea ahalbidetzen du. Horretaz aparte, gainerako pertsonetikiko harremanak errazten ditu (Abad, 2018).

Metodologia aktiboek, hezkuntza emozional modu praktikoan lantzeko aukera ematen digute, landutako edukiak eskuratzen lagunduz, eta praktikan jartzeko aukera emanez. Ez dugu ahaztu behar izaki sozialak garela, beraz, adimen interpertsonala eta pertsonenartekoa lantzea beharrezkoa da, eta bigarren hori lantzeko, komenigarria da taldean jarduerak egitea.

3.1.1.-Irakaslearen papera metodologia aktiboetan

Aurreko guztia ahalbidetzen duten pertsonak irakasleak dira. Arnaizen (2000) esanetan, irakaslearen heziketa funtzioa ez da bakarrik plangintzaren eta diseinuan amaitzen. Irakasleen betebeharren zerrenda luzea da, hala nola, erlazioatzeko era, gatazkak ulertzeko eta bideratzeko modua, haurren segurtasuna, jarrerak, keinuak, galderak, haurren beharretara egokitzeko gaitasuna edo motibatze baliabideak, horiek guztiak faktore erabakigarriak izango dira.

Irakaslearen zeregina ikasleari laguntzea, gidatzea eta ebaluatzea da, beharrezkoa den bitartean. Ikasleak bere ikaskuntzaren autonomia eta independentzia lortzen duen bitartean irakasleen papera ahultzen da. Irakaslearen funtsezko zeregina ikasleari ikasten irakastea da, ikasleari egitura kognitiboak edo eskema mentalak sortzen lagunduz. Modu horretan, ikasleak eskura duen informazioa kudeatzeko, kategorizatze eta ebaluatze gai izango da (Fernández, 2006).

Bonwellen eta Eisonen (1991) aburuz, metodologia guztien aldaketan oztoporik handiena irakasleek izan ditzaketen beldurrak dira. Errealitate horretaz jabetuta, etengabeko formakuntzak eta prestakuntzak oso lagungarriak izango dira. Irakasleak bide lagun izan behar dira, eta ikasleak berriz, haien istorioen protagonistak (Ayúcar eta Bereziartua, 2019).

Ikerketa ugari erakutsi dute metodologia aktiboen erabilerak motibazioa areagotzen duela, eta ikaskuntzaren emaitzak biderkatzen dituela. Metodologia aktiboek esker, ikasleek ezagutza esanguratsuak sakonki eskura ditzakete, eta ezagutza horiek denbora luzeagoan atxiki eta gogoratu ahal izango dira (Bustillo, 2018).

Irakasleen eginkizunen barruan garrantzi handia dute espazioen antolaketak, material erakargarriak, adin desberdinetako haurren nahasketak eta, batez ere, ikasgelen eraldaketak bermatzea, ikaskuntza gune esanguratsuak izateko.

3.1.2.- Metodologia aktiboak dokumentu ofizialetan

Espainiako hezkuntza-sistemak metodologia aktiboak maila guztietan sartzea proposatzen du, eta horrela agertzen da ECD/65/2015 aginduan. Agindu horren bidez, lehen hezkuntzako gaitasunen, edukien eta ebaluazio-irizpideen arteko loturak deskribatzen dira. (Luelmo del

Castillo, 2018).

Metodologia berritzaileen beharra aipatzen den lehenengo legean LOGSEn izan zen. LOGSE (238. Legea, 1990) legean, metodologia didaktikoak erabiltzeko eta berritzeko beharra aipatzen da, horiek guztiak irakaskuntza tradizionalan oinarritutako ikaskuntza-sistema zaharrak gainditzera bideratuta. Hortik aurrera, beste lege batzuetan, LOE 2006an eta LOMCE 2013an, zenbait artikulutan azpimarratzen da ekintza praktikoetan oinarritutako metodologia berrien beharra (Arregui, 2017).

Gaur egungo hezkuntzaren dokumentu ofizial ezberdinetan metodologia aktiboen garrantzia plazaratzen da, hala nola: Eusko Jaurlaritzako gidetan, Curriculum berrian edo Heziberri 2020an. Euskal hezkuntza-sisteman sartzen diren irakasleentzat prestatutako gidan (Eusko Jaurlaritzak, s.f.), metodologia aktiboari buruz honako hau esaten da: «gaitasunak curriculumean sartzean, irakatsi eta ikasteko prozesuetako unearen arabera askotariko metodoak erabiltzea egokia bada ere, metodologia aktiboak dira ikasleen partaidetza eta inplikazioa areagotzen dutenak; ikasketa sakonagoak, esanguratsuagoak eta iraunkorragoak eragiten dituztenak, eta eskuratutako ezagutzak testuinguru heterogeneoagoetara aldatzen laguntzen dutenak» (27 or.). Horien artean aipatzen dira ikaskuntza kooperatiboa, solasaldi dialogikoak, talde elkarreragileak eta proiektuen bidezko lana. (Ayúcar eta Bereziartua, 2019).

Ikasleen aniztasuna kontuan izanda Curriculum berriaren Dekretuaren Zirriborroa (a.g.) argitaratu da, metodologia aktiboari garrantzi handiagoa emanez. Curriculumean idatzita dagoen moduan, garrantzi handia ematen zaio ikasleek enpatia, autonomia, espiritu kritikoa, konpromiso soziala edo inguruneekiko konpromisoa garatzeari, besteak beste.

Konpetentzia horiek eskuratzeko metodologia aktiboek ezinbesteko dira, Heziberri 2020ko eredia aztertzen badugu, argi ikusten dira metodologia aktiboen hainbat ezaugarri. Alde batetik, ikaskuntza integratzaile baten beharra azpimarratzen da, non, autoestimua, autonomia, hausnarketa eta erantzukizuna lantzen den. Gainera, ikaskuntza pertsonalizatuak eskatzen dira, ikasleak berak ikaskuntza-prozesuari buruzko erabakiak hartzeko eta unean uneko beharren arabera esku-hartzera egokitzeko.

Heziberri 2020 jarraituz, ikasleak Euskal hezkuntza-sistemaren giltzarria direla aipatzen da, hau da, hezkuntzaren protagonistak. Horretaz aparte, ikasleek ere ikaskuntza-prozesuan rol aktiboa hartu behar dute, orientatzaile edo bultzatzaile gisa jardun beharko dute ikaskuntza autonomoko jardueretan, bai talde lanetan edo proiektu bidezko lanera bideratutako jardueretan.

Garapen Iraunkorreko Helburuak ekintzarako dei unibertaria dira, pobrezia amaitzeko, planeta babesteko eta mundu osoko pertsonen bizitzak eta perspektibak hobetzeko. 2015ean, Nazio Batuetako estatu kide guztiek 17 helburu onartu zituzten Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren barruan; helburu horien artean metodologia aktiboetara lau hauek bereziki egokitzen dira: kalitatezko hezkuntza, osasuna eta ongizatea, desberdintasunak murriztea eta

helburuak lortzeko aliantzak (UNRIC, s.f.)

3.1.3.- Metodologia aktiboen motak

Aktibotzat jotzen diren metodologia asko daude, arestian aipatutako ezaugarriak betetzen dituen ikaskuntza-mota bat proposatzen baitute. Horien artean, honako hauek aurki ditzakegu: ikaskuntza kontratua, ikasgai magistral parte-hartzailea, simulazioa, kasuen bidezko ikaskuntza, gela iraulia, proiektuen bidezko ikaskuntza...

UPV/EHUren (2019) aburuz, metodologia guzti horiek, oinarri komun batzuk dituzte. Haien artean, hauek: ikasleak bere ikaskuntza prozesuaren protagonista da, ikaskuntza eraikuntza-prozesu moduan ulertzen da, ezagutzak eraikitzen dituen ikaslea da, autozuzendutako ikaskuntza da, talde-lana nabarmentzen da eta etengabe hausnartuz egiten dute lan. Irakaskuntzak testuinguruan garatu behar du, alegia, mundu errealeko arazoan edo praktika profesionalen testuinguruan (Ayúcar eta Bereziartua, 2019).

Atal honetan, nire ikas egoeran erabili ditudan metodologia aktiboak, hauek izan dira:

Ikaskuntza-paisaiak

Ikaskuntza-paisaiak tresna ezin hobeak dira indibidualizazioa eta aniztasuna modu egokian lantzeko. Paisaia horiek sortzeko, askotariko jarduerak diseinatzea beharrezkoa da, ikasle bakoitzaren ezagutzak kontuan hartuta. Jarduera horiek oso ezberdinak izan behar dira, maila desberdinetan jolasteko eta ibilbide desberdinak jarraitzeko aukerarekin, horrela ikasleak aukera izango du gehien erakartzen zaion jarduera gauzatzeko. Dena den, jarduera guztiak hari eroale baten bidez lotuta egon behar dira. Ikaskuntza-paisaien barruan gamifikazioa, tailerrak edo ikaskuntza kooperatiboa txertatu daitezke, eta modu horretan ere, paisaia horien parte izango dira (Henríquez, 2018).

Gamifikazioa

Gamifikazioa jolasaren elementuak erabiltzen dituen estrategia didaktiko gisa definitzen da. Ikasleak ardatz hartuta, jolasaren mekanikaren osagai guztiekin lan egiten da, haien artean: osagai motibatzaileak, arauak, narratiba, estetika, lorpenen onarpenak...Metodologia ludiko horrek, ezagutzak modu dibertigarriagoan barneratzea errazten du, eta erabiltzailearengan esperientzia positiboak sortzen ditu (Riol, 2021).

Hezkuntzan jokoak feedbackak emateko erabili daitezke, modu horretan ikasleen motibazioa areagotzen da. Horretarako, ezinbestekoa da ongi egindakoa saritzea, eta akatsak ez zigortzea (Henríques, 2018). Ikasleak lortutako helburuen arabera sarituak izango dira. Hona hemen gehien erabiltzen diren teknika batzuk: puntuak metatzea, mailen eskalatzea, sariak edo opariak lortzea, klasifikazioak edo erronkak eta misioak (Gaitán, 2013).

Tailerrak

Tailerren bidez, ikasleek beren kabuz eta euren artean ikasten dute, elkarren arteko komunikazioa ikaskuntza prozesuaren ezinbesteko tresna izanik. Ikasleei modu autonomoan lan egiteko aukera eskaintzean ahozko interakzioa bermatzen da.

Tailerrak diseinatzerako orduan, Gibbek (1996) kontuan hartzeko honako alderdi hauek zerrendatu zituen: giro fisiko egokia sortzea, antolatzerakoan tentsio pertsonalak izan ditzaketen konbinazioak saihestea, prozeduren inguruko argibide garbiak eta talde barneko arauak ezartzeko erraztasunak ematea eta talde bakoitzak barneko erabakiak hartzeko askatasuna izatea. Tailerren antolaketarekin jarraituz, A. Careaga, R. Sica, A. Cirillo eta S. Da Luz (2006) autoreek urrats batzuk jarraitzea gomendatzen dituzte: tailerren aurkezpena (ikasleei zer eta nola landuko den azaltzea), taldeen antolaketa (ikasgelaren eta tailerren ezaugarrien araberakoa), taldeetan lan egitea eta emaitzak amankomunean jartzea (Apraiz, 2014).

Berdinen arteko ikaskuntza/Tutorizazioa

Berdinen arteko ikaskuntzan, trebetasun maila bera edo desberdina duten ikasleek zeregin bat lankidetzan gauzatzen dute, alde zehaztutako emaitzak lortzeko helburuarekin (De Lisi eta Golbeck, 1999).

Ikaskuntza elkarrekintzaren bidez eraikitzen da, eta prozesu horretan, bakoitzak bere ikuspegitik elkarri azaltzen diote, atazaren konponbidea aurkitzeko. Jarduera horretan zehar, ikasleek galderak egiteko, sortzen diren egoerak eztabaidatzeko, beren ikuspuntuak azaltzeko eta motibatuzeko aukera daukate. Horrela, ikasleek beren esanahia eta ikasten ari direnaren ulermena eraikitzen dute (Flores, 2015).

Arazoetan oinarritutako ikaskuntza

Metodologia hau, arazo baten planteamenduan oinarritzen da. Ikasgelan sortutako edo irakasleak hautatuko arazo bat aukeratzen da, eta ebazpenaren prozesuan alde zehaztutako gaitasun jakin batzuk garatuko eta eskuratuko dituzte. Arazoetan oinarritutako ikaskuntzaren helburua ikasleak arazo bat egoki ulertzea eta horretan sakontzea da. Hala ere, estrategia didaktiko horren helburua ez da arazoa ebaztea, baizik eta taldeka edo banaka arazoa oinarri gisa erabiltzea gaiak garatzeko (Vergara, 2015).

Ikasleek planteatutako arazoaren azterketa kritikoa eta egituratua egin behar dute. Horretarako, ikasleek gaia edo emandako informazioari buruz sakondu, hipotesiak planteatu, edo eztabaidatu egingo dute. Hori dela eta, metodologia aukeratzea, prestatzea eta deskribatzea funtsezko faktoreak da metodologiak arrakasta izan dezan. Gaurkotasuneko arazoak aukeratzeak, ikasleen interesa piztuko du eta motibazioa areagotuko du (López, 2017).

Proiektuetan oinarritutako ikaskuntza

Ikasleak arazo edo premia batean oinarrituta, haien helburua produktu bat sortzea izango da, arazo edo premia hori asetzeko. Helburu hori lortzeko, ikasleek egoeraren azterketa sakon bat egin behar dute, gero proiektua kudeatu, diseinatu eta azkenik, produktua sortzeko plan bat garatu. Metodologia horren ezaugarria garrantzitsuena azken produktua da. Horretarako, proiektuaren prestaketa, ikerketa eta garapena beharrezko urratsak izango dira. Ikasleek modu autonomo eta kooperatiboan lan egiten dute, errealitatearekin eta eguneroko arazoekin lotura estua mantenduz (López, 2017).

Ikaskuntza kooperatiboa

Ikaskuntza kooperatiboa ikasgelan aniztasunari heltzeko tresna gisa planteatzen da, lankidetzara, elkartasuna eta banakako desberdintasunen aintzatespena bezalako balioak sustatuz. Beste estrategia batzuen artean, askotariko trebetasun eta gaitasun ezberdin dituzten ikasleak talde txikietan eta heterogeneoetan elkartzen dira, elkarrekin ikasteko helburuarekin. Talde heterogeneo horiek lauzpabost ikasle osatzen dituzte, eta errendimendu akademikoko maila, genero eta jatorri etniko desberdinak dituzten ikasleak biltzen dituzte (Riol, 2021).

3.1.4.-Ikas-egoeren oinarriak

Lan honetan, ikas-egoera diseinatzeko, aipatutako metodologia aktiboak erabili dira aurkezten den. Baina, ikas-egoerak ondo ulertzeko bere baitan dauden hainbat kontzeptu ezagutzea ezinbestekoa da.

Ikas-egoerak ikasleek funtsezko konpetentzia eta konpetentzia espezifikoak lotzen dituen jarduerak dira. Ikas-egoeretatik abiatuta, edozein maila, arlo, jakintzagai edo eremutako mailaren programazioa gara daitezke, hainbat testuingurutan oinarrituta. Testuinguru horietan jakintzak eta gaitasunak elkartzen dira.

Funtsezko konpetentzietan dagokionez, ikasleek arrakastaz aurrera egin ahal izateko eta beren bizitzan zehar erronka eta desafio nagusiei aurre egin ahal izateko ezinbesteko jardunak dira. Berriz, konpetentzia espezifikoetan, ikasleek arlo bakoitzaren oinarrizko jakintzak behar diren egoeretan jokatu ahal izateko beharko dituzten jardunak aipatzen dira. Konpetentzia espezifikoak, funtsezko konpetentziak zehazteko elementuak dira. Gainera, funtsezko konpetentzia bakoitzerako deskriptore operatibo batzuk definitzen dira, eta deskriptore operatibo horiek derrigorrezko hezkuntza amaitzean espero den jardun-maila identifikatzen dute.

Horretaz aparte, oinarrizko jakintzak ondo zehaztuta egon behar dira, pertsonak arlo edo eremuen berezko ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak ondo menderatzeko. Oinarrizko

jakintzek arazoak ebazteko edo egoera jakin batzuetan erronkei aurre egiteko aukera emango dute. Ebaluazio-irizpidei dagokionez, ikasteko prozesuaren une jakin batean, arlo bakoitzaren jardueretan ikasleengan espero diren jardun-mailak adierazten dituzten erreferenteak dira.

Ikaskuntzarako diseinu unibertsala Curriculumak garatzeko printzipioen multzoa da, eta ikasle guztiei hezkuntzarako sarbidean aukera-berdintasuna bermatzen du, inklusioa lortzeko helburuarekin. Metodologia, irakasteko eta ikasteko parte hartzen duten elementu guztiak kudeatzeko, antolatze edota planifikatzeko erabakitzen diren bideak edo estrategiak dira.

Dena den, ikas-egoerak duela gutxi erabiltzen hasi dira, beraz, oraindik guztiz definitu gabe daude. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailean askotariko ereduak daude, baina, argi izan behar dugu hezkuntza-baliabide irekiak direla, eta testuinguru bakoitzaren beharren arabera egokitu eta berrerabil daitezkeela. Beraz, izaera orientatzailea dutela gogoratzea komeni da; hau da, ez direla jarraibide zurruntzat hartu behar (Eusko Jaurlaritza, s.f.).

3.2.- Ipuinen garrantzia haurren heziketan

Ipuina literatur genero klasiko bat da haur literaturaren barruan. Gaur egun, ipuina kontakizun labur gisa defini daiteke, sinplea eta lineala, fikziozko gaia, fantastikoa, anekdotikoa edo didaktikoa nagusi izan daitekeena. Egitura prototipokoa honako zati hauek osatzen dute: pertsonaien aurkezpena, konpondu beharreko egoera gatazkatsua, protagonistaren ekintza eta amaiera (Anta, 2021).

Asko dira ipuinek haurren garapenean eskaintzen dituzten onurak. Haurren emozioak, autoestimua, irudimena edo komunikazioa bultzatzeko eta lantzeko tresna indartsuenetarikoa bat da. Orokorrean ipuinek umeen interesa eta motibazioak pizten dituzte eta ezinbesteko helburu bat entretenigarriak izatea da. Ipuinen edukietan, irudimena eta umorea agertu behar da, eta gertatu zaizkien edo gerta dakizkiekeen gauzak lantzeko bide bat da (Rico, 2003).

Ipuinak hezkuntza-tresna ordezkazekin dira. Haurren komunikaziorako oso baliabide egokia dira, pertsonaien hainbat pertsonalitatean proiektatu eta identifikatuta ahal direlako. Esan daiteke ipuinekin literaturarekiko maitasuna pizten dela (Volosky 1995).

Ipuinek afektuaren, hitzaren, pentsamenduaren, irudimenaren, desiraren eta enpatiaren dohainak transmititzen dituzte. Kontakizun labur horiek burmuinetan gordetzen dira, sententzio, sentimendu, emozio edo pentsamenduekin bat egiten dute umeen arrazoinamendu piztuz (Abril, 2014).

Haur-literatura, eta, beraz, ipuinak, ezinbesteko tresna dira haurtzaroan garapen integrala bultzatzeko, funtzio ugari betetzen baititu. Colomerrek (2005) literaturaren funtzio aipagarrienak hiru taldetan sailkatzen ditu:

- 1.-Imajinario kolektiborako sarrera errazten du. Literaturan agertzen diren irudi sinbolikoen bidez, gizakiok mundua eta gizarte-harremanak ulertzeko gai gara, eta gure

ametsei forma eman, errealitateari buruzko ikuspegi desberdinak hartuz eta pertenezia-sentimendua eraikiz.

2.-Kultura bakoitzean erabiltzen diren eredu narratibo eta poetikoen ikaskuntza erraztea. Ipuinen bidez, gertaerak eta narrazioak, hizkuntza, hiztegia eta adierazpen berriak, pertsonaien itxaropenak eta abar egituratzen eta ordenatzen ikasten da.

3.-Sozializazio kulturala erraztea. Literaturaren bidez, elkarren arteko elkarrizketak zabaltzea lortzen da, mundua nolakoa den ezagutzeko. Literaturak, beste gauza askoren artean, pertsonak nola senti daitezkeen, arazoei nola aurre egin edo arau jakin batzuk ez betetzeagatik egon daitezkeen ondorioak beste ikuspuntu batetik ikustea ahalbidetzen du.

Horretaz gain, ipuinek erlaxatu, lasaitu, aktibatu edo irauli egin dezakete. Ipuinen bidez, hizkuntzaz, arteaz, hitz-jokoez edo soinuaz gozatzen da. Ipuinak entzutea plazer emozionala zein intelektuala izan daiteke. Gainera, ipuinak jendea hurbiltzen du, harremanak sortzen ditu, iritziak partekatu eta konfiantzako momentuak ahalbidetzen ditu.

Ipuinek bide berriak ireki eta aukerak eskaintzen dituzte. Irudimenaren mundua erakusten eta ulertzen laguntzen digute. Aurrera egiten irakasten digute. Ekintzen ondorioak erakusten dituzte eta hezi egiten gaituzte (Salán, 2016).

Ez dugu ahaztu behar ipuinak haurren balore eta emozioak lantzeko aukera ezin hobekak direla. Adimen emozionala garatzea funtsezkoa da gizakiarentzat, pertsonen egunerokotasunaren parte baitira (Abad, 2018).

Golemanentzat (2015) adimen emozionalaren gaitasun nagusiak, hauek dira: norberaren eta besteen emozioak ezagutzea eta norberaren emozioak eta motibazioak kontrolatzeko gaitasuna izatea. Ildo horretan, Abadek (2018) adierazten du ipuinek eguneroko bizitzan gertatzen diren gertaerak islatzen dituztela.

Irakurketari begira, adituek ipuinen eragin baikorrak azpimarratzen dituzte. Apalategiren (2011) esanetan "leer es participar en el cambio del mundo". Irakurzaletasuna eta benetazko literatura, askatasuna eta pentsamendu kritikoa garatzeko gai dira. Horri esker, gure inguruaz gehiago jabetuko gara. Gaur egun, denok, alfabetatze prozesu batetik igarotzen gara, eta prozesu horrek testuak irakurtzeko eta aztertzeko gaitasunak eskaintzen dizkigu. Ez da inoiz irakurri eta ez da izan gaur egun bezainbeste irakurtzeko gaitasunik, eta, hala ere, ez dugu lortzen irakurtzeko ohitura behar bezala erabiltzea eta gozatzea.

Etzanizek (2018) adierazi zuen moduan, Kultura eta Hezkuntza sailen elkarlana behar da proiektuak aurrera eramateko. Gizarte osoa inplikatu behar da, haien artean, irakasleak, familiak, auzoak, eskola-liburutegiak eta bar. Baina badirudi kontrakoa gertatzen ari dela. Hori lortzeko oztopo batzuk daude, Sanjuanez (2014) adierazten duen moduan hezkuntzaren arazo larrienera bat irakasleen formazio eza da. Irakasleek ez dute argitaratutakoa ezagutzen, ezta formazioa jasotzeko astirik ezta gogorik.

Ipuina irakasleentzako baliabide garrantzitsua bada ere, ipuinekin lan egiteko prestakuntza berezi bat behar da, ipuinak ezagutzeko eta gozatzeko. Uneak, tokiak, jarrerak, gogoak, helburuak, metodologiak edo ipuinak berak ere kontu handiz aukeratu behar dira.

Argi dago, irakurtzea ez dela nahikoa, jolasetik, plazerretik eta aniztasunetik irakurketara hurbilduko gaituzten pertsona kualifikatuak behar ditugu. Ikasleen gaitasunak eta interesak ezagutu behar dira, irakurzaletasuna eta literaturekiko maitasuna bizitza osoan zehar garatzen jarraitu ahal izateko (Sanjuan, 2014). Gaur egun, gizarte osoak egin behar duen ahalegina hezkuntzari eskatzen zaio, eta gero gazteen irakurketa porrotaren errua bakarrik hezkuntzari egozten zaio. Apalategik (2011) esaten zuen moduan “si vemos afición a nuestro alrededor, la posibilidad de que nos aficiones nosotros también se multiplica” irakurzaletasuna ez da irakatsi behar, baizik eta elkarri transmititu.

4.-Metodoa

4.1.- Ikas-egoeraren diseinua “Ipuinetan murgiltzen”

A. Ikas-egoeraren markoa

Testuingurua:

Ikas-egoera honetan inplikaturiko ikasgaiak hiru izan dira, haien artean hauek: Euskara eta Literatura, Arte Hezkuntza eta Heziketa Fisikoa. Denborari dagokionez, ordubeteko 8 saioetan egiteko interbentzioa da, 4 astetan zehar banatuta.

Lehen hezkuntzako hirugarren zikloko klasea batean kokatzen gara, non ikasleen kopurua 20 da. Ikastetxea saiatzen ari da gero eta ikaskuntza aktiboago baten alde egiten. Ikasleak autonomoagoak, kritikoagoak eta haien ikaskuntza-prozesuaz arduratsuagoak izan daitezten. Horregatik, herritar aktiboak gauzatzeko bideratuta dauden hainbat metodologia aktiboak erabili dira esperientzia esanguratsuak eta garrantzitsuak sortzeko.

Abiapuntua:

Zer dakigu ipuinei buruz? Zer dira ipuin kontaketak? Zertarako balio dute ipuinek? Antzerkia ezagutzen dugu? Zein ipuin mota ezagutzen ditugu? Eskola liburutegia nola funtzionatzen duen badakigu? Ipuinak dibertigarriak dira? Gauzak modu autonomoan sortzeko gai gara? Talde-lanean ondo moldatzen gara?

Azken ekoizpena:

Ikasleek aukeratu duten taldearen arabera, azken ekoizpena ezberdina izango da. Adibidez: antzerki bat gauzatu, ipuin kontaketa bat egin, ipuin bat sortu edo eskola liburutegiaren funtzionamendua hobetzeko jarduera bat aurrera eraman. Amaieran prozesuaren hausnarketa ahoz egin da.

B. Proposamenaren justifikazioa

Proposamenaren xedea:

Errealitate hurbileko egoera aintzat hartuta, proposamen honen xedea ikasleak metodologia aktibo ezberdinekin harremanetan jartzea da, haien autonomia, talde-lana, adierazpen artistikoa edo ongizate emozionala landuz eta garatuz.

Argudiaketa Curricularra: (Ikusi 1.taula)

C. Metodologia

Printzipioak

Inklusioa bermatzeko, IDU printzipioak kontuan hartu dira jarduerak diseinatzerako orduan:

I.Printzipioa: irudikatzeko modu ugari ematea

- Pertzepziorako aukerak: hizkiz, irudiz, audioz, pantailan, horma-irudiak, etab.
- Hizkuntzarako, adierazpen matematikorako eta sinboloetarako aukerak: euskarriak aurrean izan.
- Ulermenerako aukerak: irudiak, gidoiak, jarraibideak, errutinak, adibideak, etab.

II.Printzipioa: ekintza- eta adierazpen-modu ugari ematea

- Interakzio fisikorako aukerak: erritmoan, interakzioan eta materialetan aukera ugari, erantzuteko bide desberdinak, etab.
- Adierazteko eta komunikatzeko aukerak: une desberdinak eskaintzea, ahoz, antzetzuz, irudiz, banaka edo binaka aritzea, manipulatu daitezkeen objektuak erabiltzea, laguntzak eskaintzea, etab.
- Funtzio exekutiboetarako aukerak: helburuak bistaratzea eta lorpen- maila pertsonala ikustea, pentsatzeko denbora ematea, gogoeta- galderak, ebaluatzeko tresna ugari, etab.

III.Printzipioa: inplikatzeko modu ugari ematea

- Interesa pizteko aukerak: motibatze jarduerak, giro atsegina, ikasleek zereginen diseinuan eta helburuen ezarpenean parte hartzea, sormena bultzatzea, etab.
- Ahaleginari eta iraunkortasunari eusteko aukerak: akatsak onartzea, haietatik ikastera bultzatzea, norberaren lanari buruzko gogoeta egitea, etab.
- Autoerregulaziorako aukerak: norberaren lanari buruzko hausnarketa, autoebaluazioa, feedback-a ematea, etab.

Antolakuntza

- Hasierako fasean, talde handian lan egin dute, ikasle guztien parte hartzea sustatuz.
- Garapen fasean, talde txikiak sortu dira ikasleen gustuen eta interesen arabera.

Launaka edo bosnaka lan egin dute.

-Amaierako fasean, taldeko ekintzak bukatu ondoren, talde handian elkartu dira. Horrela, guztien artean ikasitako eta bizi izandako esperientziak, emozioak edo zailtasunak partekatu dituzte.

Jarduerak gune ezberdinetan aurrera eraman dira, hala nola, gelan, liburutegian, pasabidetan, gimnasioan, zuzendaritzan, patioan, etab.

Baliabideak

-Baliabide materialak: liburutegia, ordenagailuak, ipuinak eta ipuinak sortzeko eta antzerkia egiteko askotariko materialak.

-Baliabide pertsonalak:

Ikas-egoera honetan ikasleen parte hartze aktiboa sustatu da, autonomia eta askatasuna emanaz. Ikaskuntzaren ardatz hartuta ikasleen beharretara eta gustuetara egokitu dira, haientzat esperientzia aberasgarria eta baliagarria izan dadin.

Irakaslearen papera ikasleak, motibatzea, esperientzia anitzak eskaintzea, behatzea, aurkeztea, gidatzea, autonomia sustatzea, gatazken kudeaketarako estrategiak eskaintzea, bide lagun izatea eta hobekuntzarako proposamenak egitea izan da, besteak beste.

Ikas-egoeraren sekuentziak:

- **Hasierako fasea** (1. saioa)

Ikasleek gutun bat jaso dute, interbentzioaren pizgarria izan dena. Ikasleak ipuinen munduan murgildu dira, haien aurrezagutzak aktibatuz. Gero, hurrengo saioetarako behar dituzten ipuinen inguruko ezagutzak tailer baten bitartez eskuratu dituzte.

- **Garapen fasea** (2. 3. 4. 5. eta 6. saioak)

Bigarren saioan ikasleei ikaskuntza-paisaia aurkeztuko zaie eta eskainitako lau aukeren artean (ipuin kontaketa, antzerkia, ipuin sorkuntza eta eskola liburutegia hobetzeko proposamen bat egiteko aukera) bat aukeratu behar dute, 4 edo 5 ikasleko taldeak sortuz. Hirugarren saioan, taldeetan aukeratutako ekintza diseinatzen hasi dira. Laugarren saioan, diseinua zehaztu eta praktikatzan hasi dira. Bosgarren saioan, lanean jarraitu dute bukatutzat jo arte. Azkenik, seigarren saioan, aurreko saio guztietan gauzatu dutenaren aurkezpena edo azalpena aurrera eraman dute.

- **Amaierako fasea** (7. eta 8. saioak),

Zazpigarren saioan, emaitzak partekatu eta prozesua ebaluatu da, ikasitakoari buruzko hausnarketa eginez. Bukatzeko, zortzigarren saioan, gamifikazioaren bitartez saria lortu dute.

Ikas-egoeraren sekuentziario laburra:

-Hasierako fasea

1.saioa: Pizgarri batetik abiatuta ikaslek dituzten aurrezagutzak identifikatu eta ipuinen inguruko tailer batzuk gauzatu dira.

-Garapen fasea

2.saioa: Zertan lan egin nahi duten erabaki eta taldeak sortu dira.

3.saioa: Taldeetan aukeratutako ekintzak diseinatzen hasi dira.

4.saioa: Diseinua zehaztu eta praktikatu dute.

5.saioa: Sortutako proposamena garatu eta amaitu dute.

6.saioa: Aurreko saioetan prestatutakoa aurkeztu dute.

-Amaierako fasea

7.saioa: Talde handian egindako eta esperimintatutako guztia hausnartu, partekatu eta ebaluatu dute.

8.saioa: Gamifikazioaren saria.

E. Ebaluazio-prozesua:

Prozesuan zehar hainbat balorazio egin dira honako ebidentzia hauek aztertuta: ikasleen idatzizko eta ahozko ekoizpenak, aurrezagutzak, jarduerak, parte hartzea, taulak, elkarrizketak eta aurkezpenak. Horretarako, erreminta hauek erabili dira: behaketa, errubrikak, ebaluazio dianak eta autoebaluazio.

1.Taula

Ikas-egoeraren Argudiaketa Curricularra

ARGUDIAKETA CURRICULARRA				
Funtzesko konpententziak	Deskriptoreak	Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio-irizpideak	Oinarrizko Jakintzak
ARTE HEZKUNTZA				
HKK KE STEM KD KPSII HK EK KAKK	1,2,4,5 1,2,3, 3 1,2,3 1,3,5 1,2,3 1,3 1,2,3,4	1.Kultura, garai eta estilo desberdinetako arte-proposamenak ezagutzea, harrera aktiboaren bidez eta tresna digitalak erabiliz, jakin-mina, sentsibilitatea, errespetua eta pentsamendu kritikoa garatzeko. 3. Soinuaren, irudiaren, gorputzaren eta baliabide digital eta multimodalen aukerekin esperimentatzea, ikerketa-jardueren eta esperientzien bitartez, ideiak, sentimenduak eta emozioak sormenez adierazteko eta komunikatzeko.	1.1 Kultura- eta arte-adierazpenen bereizgarri diren zenbait korronte, estilo eta genero bereiztea, horiekiko interesa nabarmenduz harrera aktiboaren bidez eta genero-ikuspegia txertatuz. 1.2 Kultura- eta arte-adierazpen nabarmenenak deskribatzea, digitalak barne, haien ezaugarriak irekitasunez miatuz eta haien artean harremanak ezarriz. 3.1 Gorputzaren eta arte-adierazpeneko askotariko tresnen adierazpen- eta komunikazio- aukera batzuk erabiltzea, aplikazio praktikoaren bitartez, jakin-mina, interesa eta hobetzeko grina erakutsita. 3.2 Helburu espezifiko batera egokitutako zenbait adierazpen-	B. Plastika eta Ikas Hezkuntza 1. Pertzepzioa eta analisisa -Ikus-kultura. Irudia gaur egungo munduan. Interpretazio-prozesua: behaketa, irakurketa, analisisa, interpretazioa eta ebaluazioa. 2. Sorkuntza eta interpretazioa -Plastika-adierazpeneko bitartekoak, euskarriak eta materialak, arte-formatu garaikideak barne: esperimentazioa eta adierazpena. Bi dimentsioko eta hiru dimentsioko teknikak. Adierazpen-asmoa hitzez adierazteko jarraibideak. -Sorkuntza-prozesuaren faseak: plangintza, interpretazioa, esperimentazioa eta ebaluazioa. Prozesuaren eta produktuaren arteko oreka. Kolaborazio-egikaritzea. Norberaren eta besteren prozesuaren zein azken produktuaren balorazioa. C.Arte Eszeniko eta

			<p>proposamen pertsonal sortzea eta partekatzea, ideien, sentimenduen eta emozioen adierazpenaren bitartez, norberaren gaitasunetan konfiantza erakutsiz, enpatia agerian jarriz, besteen gaitasunak baloratuz eta egikaritzeko modua hobetuz.</p>	<p>Permormatiboetako Hezkuntza</p> <p>1. Pertzepzioa eta analisisia</p> <p>-Genero eszenikoak. Horietarako hurbilketa eta interpretazio dramatikoaren garrantziaren balorazioa.</p> <p>-Adierazpen eszenikoaren funtsezko elementuak. Rolak, materialak eta espazioak. Antzerki-izaera. Oinarrizko egitura dramatikoak. Praktikaren balorazioa eta interesa.</p> <p>2. Sorkuntza eta interpretazioa</p> <p>-Gorputza eta bere aukera motorrak, dramatikoak eta sortzaileak, komunikatzeko, dibertitzeko eta ideiak, sentimenduak eta emozioak adierazteko baliabide gisa. Dantza, dramatizazioa eta antzerki-emanaldia.</p> <p>-Gorputz-sorkuntza eszenikoaren eta dramatikoaren faseak: proiektuaren plangintza, behaketa eta adierazpen-asmoa hitzez adieraztea: sarrera. Materialak hautatzeko jarraibideak</p>
		<p>4. Kolaborazioko kultura- eta arte-produkzioen diseinuan, elaborazioan eta zabalkundean parte hartzea, prozesuari balioa emanez eta azken emaitza lortzeko zenbait rol bere gain hartuz, sormena, autorearen nozioa eta pertinentziaren zentzua garatzeko.</p>	<p>4.2 Sorkuntza-prozesuan parte hartzea, zenbait arte-hizkuntzako elementuak erabiliz eta konpromisoa, parte-hartze aktiboa eta errespetua erakutsiz, baita ingurune digitaletan ere.</p> <p>4.3 Sormen-esperientzia ebaluatzea eta ezagutaraztea, zenbait komunikazio-estrategia analogiko zein digital erabiliz, prozesuaz eta lortutako azken emaitzaz gozatuz, eta besteen iritzia baloratuz, berdintasunean eta aniztasunaren errespetuan oinarritutako hezkidetzaren ikuspegiaren bitartez.</p>	
EUSKARA ETA LITERATURA				
		<p>1. EAEko eta inguruko eleaniztasuna eta kultura-</p>	<p>1.2 Ohiko hizkuntza-aurreiritziak, -diskriminazioak eta -estereotipoak</p>	<p>B.Komunikazioa</p> <p>1. Hizkuntzaren erabilera</p>

		<p>aniztasuna aitortzea eta baloratzea, ikasleen eta haien inguruko hizkuntzen identifikaziotik eta interrelaziotik abiatuta, betiere hizkuntza-estereotipoak eta -aurreiritziak baztertzeko, hizkuntza guztiekiko jarrera positiboa eta errespetuzkoa izateko eta euskararen ohiko erabilerarekiko portaera asertiboak sustatzeko.</p>	<p>hautematea eta arbuiatzea, gero eta autonomia handiagoz eta hurbileko testuinguruetan (digitala barne), munduko hizkuntza-dibertsitatea kultura-aberastasunaren iturri gisa baloratuz.</p> <p>1.4 Hizkuntzen funtzionamenduaz jabetzea —laguntzarekin eta hizkuntzak behatsetik eta alderatsetik abiatuta—, eta hizkuntzen ikaskuntzak haien hizkuntza-gaitasunaren garapenari egiten dion ekarpena baloratzea.</p>	<p>-Hizkuntzaren erabilera inklusiboa, ideiak, emozioak eta sentimenduak adierazteko.</p> <p>-Komunikazio-egintzako osagaien arteko elkarrekintzak (egoera, parte-hartzaileak, komunikazio-asmoa, kanala, erregistroa).</p> <p>-Edukiko (gaiak, formula finkoak, lexikoa, informazio-inferentziak) eta formako (egitura, formatua, izenburua, irudiak) oinarritzko elementuak.</p> <p>-Autokonfiantza eta ikaskuntzari buruzko gogoeta. Errorea prozesuaren parte gisa.</p> <p>-Autoebaluazioko eta koebaluazioko oinarritzko tresnak, analogikoak eta digitalak, banakakoak eta kooperatiboak (ikasketa-egunkaria, paper-zorroa, errubrikak, ebaluazio-xedeak...).</p> <p>Estrategia kooperatibo errazak, eta talde-lanean esleitutako banako erantzukizunak bere gain hartu.</p> <p>2. Ulermena, komunikazioa eta ahozko elkarrekintza</p> <p>-Komunikazio-egintzaren araberako ahoskera eta intonazio egokiak.</p> <p>-Gatazkak elkarrizketa bidez kudeatzeko prozesuan, entzute aktiboko estrategiak, asertibitatea eta sormenezko irtenbide-</p>
		<p>2. Ahozko testuak eta testu multimodalak ulertzea eta interpretatzea, zentzu orokorra eta informaziorik garrantzitsuen identifikatuz eta alderdi formalak eta oinarritzko edukiko alderdiak baloratuz, ezagutza eraikitze eta komunikazio-premiei erantzuteko.</p>	<p>2.1 Zailtasun handiagoko ahozko testuen eta testu multimodalen zentzua ulertzea, ideia nagusiak eta mezu esplizituak eta implizituak ezagutuz, eta edukia eta hitzezkoak ez diren elementuak modu kritikoan baloratuz, baita, laguntzarekin, oinarritzko elementu formal batzuk ere.</p>	
		<p>3. Ahozko testuak eta testu multimodalak koherentziaz, argitasunez eta erregistro egokiz sortzea, ideiak, sentimenduak</p>	<p>3.1 Ahozko testu eta testu multimodal koherenteak autonomiaz, koherentziaz eta nolabaiteko arintasunez sortzea,</p>	

		<p>eta kontzeptuak adierazteko; ezagutza eraikitzea; lotura pertsonalak ezartzea; eta askotariko ahozko elkarrekintzetan autonomiaz eta jarrera kooperatibo eta enpatikoz parte hartzea.</p>	<p>testuinguru formal sinpleetan eta hitzeko eta ez-hitzeko oinarrizko baliabideak erabiliz.</p> <p>3.2 Bat-bateko edo araututako ahozko elkarrekintzetan parte hartzea, hizkuntza-kortesiaren arauak errespetatuz eta entzute aktiboko, kooperazioko eta elkarrizketa-enpatiako estrategiak garatuz.</p>	<p>proposamena.</p> <p>-Hitzekoa ez den komunikazioaren oinarrizko elementuak interpretatzeko eta erabiltzeko estrategiak.</p> <p>-Banako eta partekatutako irakurketa espresiboa, intonazio eta erritmo arinarekin.</p> <p>3. Irakurmena</p> <p>-Gero eta zailtasun handiagokoak diren elementu grafikoak, testualak eta paratestualak, ulermena laguntzen dutenak irakurketa-esperientziaren aurretik, bitartean eta ondoren.</p> <p>-Komunikazio-asmoa eta oinarrizko testu-tipologiako giltzarriak: narrazioa, deskribapena, elkarrizketa, azalpena eta argudioak.</p> <p>4. Idatzizko produkzioa</p> <p>-Aurkezpen zaindua. Aurrerapena ortografia-arauen aplikazioan.</p> <p>-Idatzizko hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako estrategiak eta jarraibideak.</p> <p>-Testu tipologiaren eta diskurtso-generoaren eredua komunikazio-asmoaren arabera hautatzeko jarraibideak.</p> <p>C.Literatura-hezkuntza</p> <p>-Literatura-obra osatzen duten elementuak</p>
		<p>5.Testu idatzi eta multimodalak zuzentasun gramatikalez eta ortografikoz sortzea, edukiak zuzen sekuentziatuz eta plangintzarako, idazketarako, berrikuspenerako eta ediziorako oinarrizko estrategiak aplikatuz, ezagutza eraikitzeke eta komunikazio-eskaera zehatzei erantzuteko</p>	<p>5.2 Modu indibidualean edo kolektiboan sortutako testu idatzien eta multimodalen autoebaluazio-eta koebaluazio-prozesuetan modu aktiboan parte hartzea, zailtasunak eta norberaren mugak identifikatuz, horiek gainditzeko laguntza bilatuz, eta errorea ikaskuntza-prozesuaren parte gisa baloratuz.</p>	
		<p>7.Gustuen eta interesen arabera aukeratutako askotariko obrak autonomiaz irakurtzea, irakurketa-esperientziak partekatuz, irakurle-nortasuna eraikitzen hasteko,</p>	<p>7.1 Beren gustuei eta interesei egokitutako eta beren irizpidearen arabera hautatutako zenbait autoreren testuak modu autonomoan irakurtzea, irakurle-nortasuna eraikitzeke bidean aurrera eginez.</p>	

		<p>irakurzaletasuna plazer- iturri gisa sustatzeko eta irakurketaren gizarte- eta kultura-dimentsioaz gozatzeko.</p>	<p>7.3 Irakurketa norberaren ezagutza- eta garapen-iturri gisa baloratzea, irakurritakoa inguruko errealitatearekin —eremu publiko/soziala zein eremu pertsonala— gero eta autonomia handiagoz erlazionatuz.</p>	<p>(gaia, protagonista, pertsonaia sekundarioak, trama, agertokia, hizkuntza), obraren zentzua gero eta autonomia handiagoz eraikitzean.</p> <p>-Literatura-generoaren oinarrizko elementuen eta obraren zentzua eraikitzearen arteko erlazioa.</p>
		<p>9.Hizkuntzari buruz gogoeta egitea, testuinguru esanguratsuetako testuak sortzeko eta ulertzeko prozesuetatik abiatuta eta oinarrizko terminologia egokia erabiliz, ikasleak hizkuntzako eta hizkuntza arteko kontzientzia garatzen hasteko eta ahozko eta idatzizko produkzioaren eta ulermenaren trebetasunak hobetzeko.</p>	<p>9.2 Norberaren eta besteen testuak gero eta autonomia handiagoz berrikustea eta hobetzea, eta irakurritakoa ulertzeko eta idatzizko adierazpenerako arazo batzuk konpontzea, gogoeta metalinguistikotik abiatuta eta oinarrizko terminologia egokia erabiliz.</p>	<p>-Literatura-testuak modu librean eta emandako ereduetatik abiatuta sortzeko jarraibideak, genero-ikuspegia kontuan izanik.</p> <p>-Literaturaren eta beste arte- eta kultura-adierazpen batzuen arteko loturak.</p> <p>-Gelako edo ikastetxeko liburutegia erabiltzeko jarraibideak, literatura-jarduera partekatuetarako espazioa. Irakurketa-komunitateak.</p>
		<p>10.Norberaren komunikazio-praktikak bizikidetzaren demokratikoaren zerbitzura jartzea, hizkuntza ez-diskriminatzailea eta inklusiboa erabiliz eta hitzaren bidez botere-abusuak atzemanaz eta</p>	<p>10.2 Talde-lanean modu aktiboan parte hartzeko oinarrizko estrategiak mobilizatzea, beharrezko laguntzarekin eta planifikazioarekin eta esleitzen zaizkion banako erantzukizunak bere gain hartuz, eta gatazkak elkarrizketa</p>	

		baztertuz, hizkuntzaren erabilera eraginkorra eta etikoa bultzatzeko.	bidez kudeatzea, argudiatuz eta sormenezko irtenbideak proposatuz.	
HEZIKETA FISIKOA				
		7. Gorputza adierazpen- eta komunikazio-tresna gisa baliatzea, haren eragina baloratuz, baita kultura tradizionalari eta garaikideari egiten dizkion ekarpen estetikoak eta sorkuntzakoak ere, eguneroko bizitzan modu erregularrean erabiltzen diren jarduketa motorren artean integratzeko.	7.1. Gorputzaren eta mugimenduaren adierazpen baliabideak modu estetiko eta sortzailean erabiltzea, sentsazioak, emozioak eta ideiak komunikatuz eta arte- edo adierazpen-asmoa duten ekintzetan eta adierazpen sexistak saihestuz 7.2. Banakako edo taldeko proiektu motorrak garatzea, helburuak zehaztuz, ekintzak sekuentziaz eta jarraitutako prozesua eta lortutako emaitza baloratuz.	C.Kooperazioko egoera soziomotorrak -Trebetasun sozialak eta elkarriketa, gatazken ebazpenean. -Jarrera kritikoa eta konpromiso aktiboa estereotipoen, diskriminazioen eta indarkeriaren aurrean. -Enpatia, elkartasuna eta dibertsitatearekiko errespetua (generoa, afektibo sexuala, jatorri nazionala, etnikoa, sozioekonomikoa edo konpetentzia motorrekoa). F.Arte- eta adierazpen-egoera motorrak -Gorputzaren komunikazio-erabilerak: sentimenduak, emozioak eta ideia sinpleak

				<p>komunikatu.</p> <p>-Norberaren espazioa eta hurbilekoa, eta komuna edo koreografikoa, erritmoa eta denboraren antolaketa (tempoa, egitura erritmikoa, esaldia, errepika melodikoa, pultsazioak, isiluneak, intentsitateak, altuera).</p> <p>-zioaren nozioak: planoak (aurretikoa, dortsala, sagitala), simetriak, gauzatenorabideak eta -altuerak, prestakuntzak, orientazioak.</p> <p>-Norberaren eta besteen produkzioak. Gainerakoen begirada onartu.</p> <p>-Behaketa-irizpideak: zailtasuna, originaltasuna, edertasuna, ekintzak kontrolatu eta menderatu, espazioaren erabilera, denboraren egituraketa, ekintzen jarraipena, zehaztasuna.</p> <p>- Askotariko rolak (aktorea, dantzaria, ikuslea, behatzailea, koreografoa).</p>
--	--	--	--	--

4.2.- Praktikara eraman dudana

Testuingurua:

Lehen hezkuntzako seigarren mailako klase batean praktikara eraman da hurrengo interbentzioa. Gela horretan 20 ikasle daude, bosteko taldeetan banatuta. Proiektuak lan egiten dute eta talde interaktiboak praktikan jartzen dituzte haien artean lagunduz, motibatuz eta lan eginez. Dena den, talde-lanetan, ikasleen arteko harremanetan eta emozioen kudeaketan hutsuneak antzeman dira.

Ikastetxe honetako eskola-liburutegia ikasleak liburuekin lotura sendoagoa sortzen saiatzen ari da. Liburutegia erakargarriagoa izateko hainbat aldaketa egin dituzte, txoko berriak sortuz eta ipuin berritzaileak erosituz. Horregatik, ideia bikaina iruditu zait ipuinak eta espazio berri hori nire interbentzioan sartzea.

Ikasleak ezagutu ondoren, ikasle horien beharretara moldatzen diren jarduerak aukeratu ditut. Ikasleak besteekin harremanetan jartzeko, lasai egoteko, motibatze eta autoestimua hobetzeko daukaten beharrek, ipuin kontaketa zentratuko gara. Inplikaturako ikasgai nagusia Euskara eta Literatura izango da eta interbentzioa ordubeteko zazpi saioetan burutuko da.

Abiapuntua:

Zer dakigu ipuinei buruz? Zer dira ipuin kontaketa? Gauzak modu autonomoan sortzeko gai gara? Talde lanean ondo moldatzen gara?

Helburu didaktikoak:

- Ikasleek gozatu ahal dituzten ekintza aberasgarriak, dibertigarriak eta motibagarriak egitea.
- Elkarren arteko ikaskuntza praktikatzea.
- Autonomia, pentsamendu kritikoa, jarrera eta parte-hartze aktiboa bultzatzea.
- Metodologia aktiboak praktikan jartzea.
- Ikasleen ipuinen munduan murgiltzea eta ipuin kontaketa nola egiten diren ikastea.

Azken ekoizpena:

Talde bakoitzak lehen hezkuntza edo haur hezkuntzako klase batean ipuin kontaketa bat egin behar dute eta horren inguruan jarduerak bat aurrera eraman behar dute.

Antolakuntza

Hasierako fasean talde handian lan egin dute. Garapen fasean lau taldeetan lan egin dute eta amaierako fasean, taldeko ekintzak bukatu ondoren, talde handian elkartu dira eta

haien artean hausnarketa egin dute eta ondorioak atera dituzte.

Baliabideak:

- Baliabideak materialak: ipuinak, ordenagailuak, idazteko materiala eta ur botilak.
- Baliabide fisikoa: eskolako sukaldea, liburutegia eta gelak.

Ikas egoeraren sekuentzia laburra:

-Hasierako fasea (1.saioa)

Lehenengo saioan ikasleek pizgarri moduan gutun bat jaso dute, haien interesa eta parte hartzea sustatzeko. Gero, ikasleek ipuinen inguruan dituzten aurrezagutzak identifikatu dira.

-Garapen fasea (2. 3. 4. eta 5.saioak)

Bigarren saioan ikasleek ipuin kontaketen inguruko tailer bat jaso eta ezagutza berriak praktikan jarri dituzte, taldeetan elkarri ipuinak kontatuz.

Hirugarren saioan ikasleak taldeetan banatu dira, eta talde bakoitzak erabaki du zein mailetan egin nahi duen ipuin kontaketa. Ondoren maila, horretara egokitzen den ipuin bat aukeratu dute.

Laugarren saioan, ikasleek taldeka aukeratutako ipuina landu dute eta ipuin kontaketa praktikatzan jarraitu dute. Horretaz gain, ipuinaren gaiarekin lotuta duen jarduera bat diseinatu dute.

Bosgarren saioan, ikasleak taldeka banatu dira eta bakoitza aukeratuko klasera joan dira ipuin kontaketa egitera eta jarduera aurrera eramatera.

-Amaierako fasea (6. eta 7. saioak)

Seigarren saioan ikasle guztiak talde handia elkartu dira eta bizi izandako esperientziari edo jarduerari buruz hausnartu dute.

Amaieran, zazpigarren saioan, ikasleek gamifikazioaren bitartez sari bat lortu dute.

2.Taula

Proposamenaren jardueren sekuentziazio laburra

HASIERAKO FASEA		
Ataza/Jarduera	Lorpen-adierazleak	Ebaluatzeko tresnak eta erremintak
1.Pizgarria eta formakuntza	Aurrezagutzak identifikatu	Ahozko parte hartzea eta ebaluazio diana (ikusi 2. eranskina)
GARAPEN FASEA		
Ataza/Jarduera	Lorpen-adierazleak	Ebaluatzeko tresnak eta erremintak
2.Elkarren arteko Ipuin kontaketa	Ipuin ezberdinak ezagutu, ipuin kontaketak nola egiten diren ikasi eta praktikatu	Ipuin kontaketa fitxa (ikusi 6.eranskina), autoebaluazio fitxa (ikusi 9.eranskina) eta errubrika (ikusi 8.eranskina)
3. Ipuina aukeratu	Ipuin kontaketa egin nahi duten maila zehaztu, ipuin apropos bat aukeratu eta ipuin kontaketa praktikatu dute	Autoebaluazio fitxa eta errubrika
4. Jarduera diseinatu eta praktikatu	Aukeratutako ipuinaren gaia landu eta horrekin lotuta talde bakoitzak jarduera txiki bat diseinatu du	Autoebaluazio fitxa eta errubrika
5. Ipuin kontaketa eta jarduera aurrera eraman	Talde bakoitza esleitutako klasera joan da eta ipuin kontaketa eta jarduera gauzatu dute	Ekoizpenaren aurkezpena, autoebaluazio fitxa eta errubrika
AMAIERAKO FASEA		
Ataza/Jarduera	Lorpen-adierazleak	Ebaluatzeko tresnak eta erremintak
6. Emaitzak partekatu	Taldea bakoitzak egindako ipuin kontaketa esperientziak eta hausnarketak beste azalduko dizkie	Ahozko balorazioa, autoebaluazio fitxa, ebaluazio diana eta errubrika
7.Saria	Gailletak egin (ikusi 13. eranskina)	Sariaren ekoizpena eta errubrika

5.-Proposamenaren ebaluazioa

Praktikan jarritako ikas egoeratik hainbat emaitza ezberdin atera eta ondorioztatu daitezke. Emaitza horiek lortzeko, metodo eta modu desberdinak erabili dira. Alde batetik, ikasleek dinamiketan zehar izan ditzuzten jarrerak eta parte hartzea ebaluatzeko errubrikak eta autoebaluazio fitxak erabili dira. Bestetik, ikasleen aurrezagutzak eta hausnarketak ahoz jaso dira. Gainera, ikasleen autoebaluazioa oso baliagarria izan da saioetan egiten zutenari buruz hausnartzeko eta hobetu beharreko arazoez ohartzeko. Horretaz aparte, lehenengo eta azken saioetan ebaluazio dianak erabili dira. Gainera, interbentzio osoan zehar ikasleen motibazioa pizteko eta mantentzeko gamifikazioa erabili da.


Ikasleen aurrezagutzak jasota geratu dira grabazio batean, bertan argi geratu da ez dituztela erreferentziatzko ipuinak, ezta ipuinen inguruko jakintza sakonak ere. Ipuin baten izenburua esateko eskatu zaie, baina ikasleek ez ditzute ipuinak gogoratu. Ondorioz, ikasleek seigarren mailan irakurtzen dituzten liburuetara edo Disneyek egindako pelikuletara jo dute. Adibidez: *Peter Pan*, *Harry Potter*, *Txanogorritxu*, *Edurne Zuri* edo *Printze txikia*. Ikasleen ustez, ipuinek pertsona baten egoera kontatzen dute, horretarako argazkiak ezinbestekoak direla baieztatu dute eta istorio guztietan pertsonaia onak eta gaiztoak bereizten direla esan dute. Era berean, ipuinen helburua dibertitzeaz aparte, irakaspen bat transmititu nahi dutela pentsatzen dute.

Ikasleek adierazi duten guztia kontuan hartuta, ikasleek duela asko ez dituztela ipuinik irakurtzen ezta gozatzen egiaztatu da. Badirudi une batean esperientzia horiek izan badituzte erabat ahaztu dituztela.

Emaitzak jasotzeko moduarekin jarraituz, ebaluazio dianen garrantzia azpimarratzeko beharra dago. Ebaluazio dianak emaitzak islatzeko baliabide oso erosoak dira, eta irakaskuntzaren edozein mailan erabili daitezke. Pertsona batek edo talde batek, oro har, balorazioaren emaitza diren irizpide jakin batzuei buruz egiten duen autoebaluazioa ikusteko aukera ematen dute. Ebaluazio dianak egiteko, eraztun zentrokideen multzo bat marrazten da. Muturrekoek balorazio altuenak adierazten dute aztertutako irizpideari buruz, eta zentralek balio txikiagoa izango dute. Gero, aztertu nahi ditugun irizpideak eta erpinak definitzen dira. Azkenik, ikasleei eskatzen zaie norberaren balioespenaren arabera dianak margotzea. Denboran zehar dianak etengabe erabiltzeak ikasleen bilakaera ikusteko, indartu diren alderdiei buruz eztabaidatzeko eta dituzten hutsuneak hautemateko aukera ematen digute (Vergara, 2015).

1.Irudia

Erabilitako ebaluazioa dianaren irudia



Sortutako ebaluazioa diana zortzi irizpideetan oinarritu dago, zehazki honako hauek:

- 1.-Ipuinak interesgarriak iruditzen zaizkit.
- 2.-Ipuin ezberdinak ezagutzen ditut.
- 3.-Talde lanean ondo moldatzen naiz.
- 4.-Neure buruarengan konfiantza daukat.
- 5.-Txikiekin ondo lan egin dezaket.
- 6.-Ipuin kontaketeak nola funtzionatzen duten badakit.
- 7.-Ipuinak garrantzitsuak dira.
- 8.-Motibatuta nago.

3. Taula

Irizpide bakoitzetik ateratako hasiera eta amaierako ebaluazio dianen batezbestekoa eta bien arteko aldaketak

Irizpideak	1	2	3	4	5	6	7	8
1. Batez bestekoa	2.94	2.48	3	2.89	3.21	2.47	3.21	3.15
2. Batez bestekoa	3.21	3.26	3.47	3.21	3.47	3.52	3.21	3.15
1.aren eta 2.aren arteko aldaketa	0.26	0.42	0.47	0.31	0.26	1.05	0	0

Behin ikasleen hasierako eta amaierako ebaluazio dianak alderatuta, ikasleen balorazioaren batez bestekoa irizpide gehienetan gora egin duela argi ikusten da, azken bietan izan ezik, berdin mantendu direlako. Egindako ikas-egoeraren emaitzak hobeto ulertzeko, ebaluazio dianetatik ateratako datuak grafikoetan islatu dira. Ardatz batean, ikasleen kopurua batetik hamarrera adierazita dago. Beste ardatzean, ikasleek irizpideei buruz adierazitako balorazioa dago, batetik (zentroko balioa) laura (muturreko balioa), bata balorazio baxuena izanik eta laua altuena.

2. Irudia.

Bigarren irizpidetik ateratako grafikoak



Irizpidean, ikasleei galdetu zaie ea ipuin ezberdinak ezagutzen dituzten. Lehenengo eta bigarren grafikoen artean baieztatu daiteke 0.42ko hazkundera. Beraz, interbentzioaren amaieran, ikasleak ipuin gehiago ezagutzen dituztela ondorioztatu daiteke.

3. Irudia.


Hirugarren irizpidetik ateratako grafikoak



Irizpidean, ikasleei talde lanean ea ondo moldatzen diren galdetu zaie. Kasu honetan hazkundera 0.48koa izan da. Taldeetan ondo lan egin dutela adieraziz.

4. Irudia

Laugarren irizpidetik ateratako grafikoak



Irizpidean, ikasleei beren buruarengan duten konfiantzari buruz galdetu zaie. Amaierako grafikoan ikus daitekeenez, ikasleen %50ek baino gehiagok beren buruarengan konfiantza handia dutela adierazi dute. Beraz, lortutako hazkundera 0.31koa izan da.

5.Irudia

Seigarren irizpidetik ateratako grafikoak



Irizpidean, ikasleek ipuin kontaketan duten ezagutzari buruz galdetu zaie. Alde nabariak ikus daitezke bi grafikoen artean. Lehenengo grafikoan 2. balorazioa aukeratuena izan da, berriz, amaierako grafikoan 4. balorazioa aukeratuena izan da. Hori dela eta, grafikoen arteko aldea 1.05koa izan da. Grafikeen arabera, hasieran ipuin kontaketen ezagutza oso baxuak zen eta amaieran, berriz, oso altuak.

6.-Ondorioak

Gradu amaierako lan honetarako ezarritako helburu nagusienak lortu direla agerian geratu da. Hasierako atalean jasotako informazioan eta teorian oinarrituta, ikasgela batean aurrera eramateko ikas egoera bat diseinatu da. Bidean metodologia aktibo ezberdinak ezagutu eta haien ezaugarri positiboak landu dira. Metodologia horiek hobeto ezagutzeko eta nola erabili daitezkeen ikusteko, lehen hezkuntzako seigarren mailako klase batean dinamika horiek praktikan jarri dira, ikaskuntza-paisaiaren, ikaskuntza kooperatiboaren edo gamifikazioaren bitartez. Modu horretan, ikaskuntza esanguratsua eta baliagarria jasotzea lortu da.

Metodologia aktibo ezberdinak uztartzea eta lehen hezkuntzako gela batean praktikan jartzea posible eta onuragarria da, batez ere, ikasleen eta irakasleen jarrera eta inplikazioa egokia bada. Lortutako emaitzak oso positiboak izan dira. Prozesu osoan zehar ikasleen autonomia, lankidetzeta, konfiantza eta ezagutzak handituz joan dira. Ikasleak ipuinei ezta ipuin kontaketei ia ezagutzak ez izatetik, ikasle txikiagoen gela batera joatera eta istorio kontatzeko estrategia desberdinak erabiltzera igaro dira. Azkenik, ikasleak bete-betean sartu ziren irakaslearen rolean, eta kontatutako ipuinarekin zerikusia duen dinamika bat gauzatu dute.

Azken finean, horrelako dinamikekin lortzen dena ez da bakarrik maila akademikoan geratzen, aitzitik, eguneroko zailtasunei aurre egiten, haien arteko harremanak sendotzen, beren buruekiko konfiantza handitzen edo uneaz gozaten laguntzen die. Egindako lan guztia gailleten sariarekin bukatu da, eta dinamika hori ikasleentzat oso berezia izan dela sumatu dut. Beraz, gustatuko litzaidake pentsatzea ikasleek bizi izandako oroitzapen atsegina betiko gogoratuko dutela, nik egingo dudan moduan.

7.-Mugak eta hobetzeko proposamenak

Orokorrean ez dut arazo handirik izan dinamikak diseinatzeko eta gauzatzeko orduan. Proposatutako ikas-egoera orokor batetik abiatuta, nire taldera hobeto egokitzen diren ekintzak aukeratu eta praktikara eraman ditut. Aipatzekoa da praktika hori gauzatu dudan ikastetxeak metodologia aktiboen alde apustu egiten duela, beraz interbentzioaren diseinua ikusi dutenean ez dute inolako eragozpenik jarri. Prozesu guztian zehar beste irakasleen laguntza eta babesa ezinbestekoa izan da, informazioa eta iritziak elkar trukatzeko. Irakasleen aldetik neure buruarengan konfiantza nabaritu dut, eta irakasleek beste lankide bat banintz bezala tratatu naute.

Dena den, umeekin lan egin ondoren, konturatu naiz, oso zaila dela planifikatutako guztia pentsatuta neukan moduan aurrera ateratzea. Lan egiteko unean, nik uste dut buruan ondo egituratutako eskema bat izatea oso garrantzitsua dela, baina baita malgutasun gaitasuna erakustea, ustekabeen sor daitezkeen egoerei modu originalean aurre egiteko.

Planifikatutakoa praktikara eramateko orduan, batzuetan ikasleei proposatu zitzaizkien jarduerak beraienez ezohizkoak zirenez, haurrak urduri eta aztoratuta nabaritu nituen, eta une horietan zaila izaten da lasaitasunera bueltatzea eta lanean hastea. Hori saihesteko lanean hasi baino lehen erlaxatzeko ariketa batzuk erabili ditut.

Nire papera batez ere gidariarena izan da, baina behaketa une guztietan egitea ezinbestekoa izan da, ikasleak zertan ari diren jakiteko eta laguntza behar izanez gero irakasleen ondoan egoteko. Era berean, galdera egokiak eta une egokian egitea garrantzi handia duela konturatu naiz, baita ikasleak motibatzea, eta hori lortzeko, ikasleek gu ere lanean inplikaturik gaudela sumatu behar dute.

Dena amaitu ondoren, nik uste baina askoz hobeto atera dela egiaztatu dezaket, eta nire helburu garrantzitsuenak bete direla. Metodologia aktiboen inguruan sakondu dut, edonork erabili dezakeen ikas-egoera bat diseinatu dut eta hortik abiatuta, nire gelan esku hartze bat burutzeko gai izan naiz. Bukatzeko lanaren emaitzak eta ondorioak atera ditut, eta baieztatu dezaket oso lan aberasgarria izan dela eta asko ikasi dudala.

8.-Hausnarketa

XXI. mendeko irakasleak izango gara eta argi izan behar dugu irakaskuntza pasiboa, teorikoa eta errepikakorraren garaia bukatu dela. Gaur egun ikasle aktiboak eta parte hartzaileak behar ditugu. Pertsonak osotasunean hezi behar ditugu, horretarako, askatasuna, segurtasuna, maitasuna, autonomia edo konfiantza eman eta transmititu behar diegu.

Metodologia ezberdinak ezagutzea eta horiek elkarren artean uztartzen jakitea beharrezkoa da. Ikasleok gaur egungo arazo edo egoeretara hurbiltzea lortu behar dugu. Hori lortzeko, modu asko daude, baina metodologia aktiboak aukera ezin hobeak dira, eta horixe

da hain zuzen ere, nire lanean nabarmentzen saiatu naizena, batez ere ariketapraktikoan. Umeen beharrak eta interesak abiapuntua hartzen baditugu, motibazioa eta jakin-mina bermatuko ditugu eta ikuspegi dinamiko horretan komunikazioa, autonomia, jokoak, ikaskuntza kooperatiboa, eztabaidak edo hausnarketak zutabe garrantzi batzuk izango dira, besteak beste.

Nire bizitza osoan zehar izan ditudan irakaspenak, lehen hezkuntzatik hasita unibertsitatera arte, gehienak metodologia tradizionaletan oinarrituta egon dira. Jarrera pasibo batetik abiatuta eta aulki batean eserita, irakurtzen, probabilitatea kalkulatzeko, Lorcaen olerkiak buruz ikasten edo marrazkiak egiten ikasi nuen. Berriz, gehien gustatu zitzaizkidan irakasgaiak edo irakasleak ondo gogoratzen ditut. Irakasle horiekin, esperimentazioa, esplorazioa, askatasuna, talde-lana eta autonomia praktikan jarri nituen, klasetik ateratzen, elkarrizketak egiten edo patio apaintzeko horma-irudiak sortzen. Baina, zoritxarrez, bizi izan ditudan horrelako esperientziak oso urriak izan dira.

Nik metodologia aktiboak erabili ditut 6.mailako ikasleekin ipuinen munduak izan dezakeen gozamen eta erakargarritasuna gogorarazteko. Metodologia aktibo guztiak aztertu ondoren, nire ikasleen ezaugarrietara hobeto egokitzen zirenak aukeratu nituen, eta benetan ikaskuntza aberasgarria eta dibertigarria eskaintzen diezunean ikasleen aurpegian hauteman daiteke. Ez dut uste hurrekin lan egitea lan erraza denik, baina haien beharretara eta interesetara moldatuz gero, asko eskertzen dute, edo behintzat hori da nik sentitu dudana. Guztion artean ikaskuntza berritzeko aukera daukagu, beraz, goazen hezkuntza bultzatzera eta ikasleek behar dituzten irakasle paregabeak izatera.

9.-Bibliografía

- Abril, P. (2014). *Los dones de los cuentos*. Octaedro.
- Almudena, G.(2017). *Otra educación ya es posible. Una introducción a las pedagogías alternativas*. Litera libros editorial.
- Anta, N. (2021). *¿Cómo contar un cuento? Que tener en cuenta y la realidad escolar* [Trabajo Fin de Grado, Universidad del País Vasco].
- Apalategi, U. (2011). Irakurzaletasuna hezkuntza-sistemaren helburu?. *EGAN*, 64(3-4).
- Arnaiz, V. (2000). La seguridad emocional en la educación infantil. *Praxis*, 1, 3-37.
- Arregui, J. (2017). *Las Metodologías Activas Aplicadas a la Formación Profesional. Evaluación de un Proyecto de Cambio Metodológico* [Tesis doctoral, Universidad del País Vasco].
- Ayúcar Castro, A. eta Bereziartua Etxeberria, G. (2019). Ikaskuntza-Metodologia Aktiboak : Donostiako Lehen Hezkuntzako ikastetxeen errealitaterako hurbilpen bat. *Tantak*, 31(2), 109-132. <https://doi.org/10.1387/tantak.20766>.
- Bernal, M. del C. eta Martínez, M.S. (2009). Metodologías activas para la enseñanza y el aprendizaje. *Revista Panamericana de Pedagogía*, 14, 101-106.
- Bernardo Carrasco, J. eta Javaloyes Soto, J.J. (2015). *Motivar para educar. Idea para educadores docentes y familias*. Narcea.
- Bisquerra Alzina, R. (2005). La educación emocional en la formación del profesorado. *Revista interuniversitaria de formación del profesorado*, 19(3), 95-114
- Bonwell, C.C., eta Eison, J.A. (1991). *Active Learning: Creating Excitement in the Classroom*. 1991 ASHE-ERIC higher education reports. ERIC Clearinghouse on Higher Education, The George Washington University, One Dupont Circle, Suite 630, Washington, DC 20036-1183.
- Bravo Lucas, E., Costillo Borrego, E., Bravo Galán, J.L. eta Borrachero Cortés, A.B. (2020). Emociones de los futuros maestros de educación infantil en las distintas áreas del currículo. *Revista de Currículum y Formación de Profesorado*, 24(1),96- 114. DOI: 10.30827/profesorado.v24i1.8846
- Careaga, A., Sica, R., Cirillo, A. eta Da Luz, S. (2006). *Aportes para enseñar e implementar un taller* [Archivo PDF].http://www.smu.org.uy/dpmc/pracmed/ix_dpmmc/fundamentaciontalleres.pdf
- Caro García, M. D. M. (2020). *El uso de las metodologías activas de aprendizaje en el sistema educativo* [Trabajo Fin de Máster,Universidad de Málaga].
- Céspedes, A. (2013). *Educación las emociones*. Ediciones B.
- Colomer, T. (2005). El desenlace de los cuentos como ejemplo de las funciones de la literatura infantil y juvenil. *Revista de Educación*, extr., 206-216.

- De Lisi, R., eta Golbeck, S. L. (Ed.). (1999). *Cognitive perspectives on peer learning*. Lawrence Erlbaum Associates Publishers.
- Dewey, J. eta Dewey, E. (1962) *Schools of tomorrow*. Dutton.
- Etzaniz, X. (2018ko urriak 9). Euskal irakurleak?. *Berria*.
<https://www.berria.eus/paperekoa/1876/018/001/2018-10-09/euskal-irakurleak.htm>
- Eusko Jaurlaritza (a.g). Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen Dekretuaren Zirriborroa.
- Eusko Jaurlaritza. (s.f.). *Gidak*. <https://curriculum.euskadi.eus/eu/gidak>
- Fernández March, A. (2006). Metodologías activas para la formación de competencias. *Educatio Siglo XXI*, 24, 35-56.
- Flores, J.R. (2015). El aprendizaje entre pares en la evaluación de trabajos de investigación. *YACHANA Revista Científica*, vol. 4, Edición Especial (noviembre de 2015) pp. 115-121.
- Freire, P. (1997). *Pedagogía de la autonomía: saberes necesarios para la práctica educativa*. Siglo XXI.
- Gaitán, V. (15 de octubre de 2013). Gamificación: el aprendizaje divertido. *Educativa*.
<https://www.educativa.com/blog-articulos/gamificacion-el-aprendizaje-divertido/>
- Gibb J., (1996). *Manual de dinámica grupal*. Lumen-Humanitas.
- Glaser, R. (1991). The Maturing of the relationship between the science of learning and cognition and educational practice. *Learning and Instruction*, 1(2), 129-144.
- Goleman, D. (2015). *Inteligencia emocional*. Kairós.
- Irene, R. (2021). *Ikaskuntza kooperatibo baten esperientzia Gamifikazioaren bitartez*. [Gradu Amaierako Lana, Euskal Herriko Unibertsitatea].
- Jessica, A. (2018). *Los Cuentos, un sendero por el que viajar hacia nuestro corazón. La inteligencia emocional en Educación Infantil a través del cuento* [Trabajo Fin de Grado, Universidad del País Vasco].
- Laura, B. (2018). *Metodologías activas para el desarrollo de la competencia en traducción médica*. [Gradu Amaierako Lana, Euskal Herriko Unibertsitatea].
- Lea, S.(2016). *La magia de sentir y pensar. La inteligencia emocional a través del cuento en Educación Infantil* [Trabajo Fin de Grado, Universidad del País Vasco].
- Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación. Boletín Oficial del Estado, 106, 4 de mayo de 2006.
- Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo. Boletín Oficial del Estado, 238, 4 de octubre de 1990.
- Ley Orgánica 8/2013, de 9 de diciembre, para la Mejora de la Calidad Educativa. Boletín Oficial del Estado, 295, 10 de diciembre de 2013.
- López Rodríguez, J. (2017). La promoción del emprendimiento social mediante metodologías

- innovadoras: hacia un nuevo paradigma educativo. *Lan Harremanak - Revista de Relaciones Públicas y Comunicación*, (33), 75- 93. <https://doi.org/10.1387/lan-harremanak.18413>
- Luelmo del Castillo, M.J. (2018). Origen y desarrollo de las metodologías activas dentro del sistema educativo español. *Encuentro*, 27, 4-21.
- Maite, H. (2018). *Atender a la diversidad en las clases de biología y geología de la ESO mediante la gamificación y los paisajes de aprendizaje* [Trabajo Fin de Master, Universidad de La Laguna].
- Márquez A., eta García J.B.(2022). Metodologías activas y diseño universal para el aprendizaje. Influencia de las pautas DUA en el diseño de tareas, actividades y/o ejercicios de aula. *JONED. Journal of Neuroeducation*, 3(1), 109-118. doi: 10.1344/joned.v3i1.39661
- Narváez, E. (2006). Una mirada a la escuela nueva. *Educere*, 10(35), 629-636.
- Oihane, A.(2014). *Ikuspegi eta metodo ezberdinak hizkuntzen irakaskuntzan: ahozko tasuna lantzeko tailerrak* [Grado Amaierako Lana, Euskal Herriko Unibertsitatea].
- Presnsky, M. (2001). Digital natives, digital immigrants. *On the Horizon*, 9(5), 1-6. <https://doi.org/10.1108/10748120110424816>
- Rico, L. (2003). *Como hacer que tus hijos lean: analisis y recetas*. Alfaguara.
- Sanjúan, M. (2014). *La dimensión emocional en la educación literaria*. Prensas de la Universidad de Zaragoza.
- UNRIC. (s.f). *Agenda 2030*. <https://unric.org/es/agenda-2030/>
- UPV/EHU (s.f.). *Irakaskuntza-Metodologia Aktiboak ERAGIN programan*. Hemendik hartuta <https://www.ehu.eus/eu/web/sae-helaz/eragin-irakaskuntza-metodologia-aktiboak>
- Vergara, J.J. (2016). *Aprendo por que quiero. El Aprendizaje Basado en Proyectos (ABO), paso a paso*. Ediciones SM.
- Volosky, L. (1995). *Poder y magia del cuento infantil*. Editorial Universitaria.

ERANSKINAK

1. Eranskina. Interbentzioaren sekuentziario mapa.



2.Eranskina. Pizgarria.




Ikasle agurgarriak;

Badakizuenez Mariturriko eskolako liburutegian hainbat aldaketa egin ditugu, zuek, ikasleok, ipuinetaz eta liburuetaz disfrutatu dezazuen. Horregatik urtearen hasieran ipuin kontalari batekin kontaktuan jarri ginen eta eskolara etortzera gonbidatu genuen. Lehengo erantzuna baiezkoa izan zen, baina aurreko astean ipuin kontalariak deitu zigun eta pena handiz aurten ezin izango zela gure eskolara etorri esan zigun.

Ipuin kontalariaren ekintza porrot egin duenez, konponbide baten bila gaude. Aurreko astean izandako irakasle bilera batean honen inguruan egon ginen hitz egiten eta ideia bat bururatu zitzaigun. Zergatik ez dute gure 6.mailako ikasleek ipuin kontaketa egiten? Eskolako ikasle nagusienak zarete, eskolaren funtzionamendua ezagutzen duzue, gauzak zuzen irakurtzen eta kontaktzen dakizue...


Horregatik galdetu nahi dizuegu: zer irudituko litzazueke ipuin kontalariaren paperean sartzea? Badakigu ez dela lan erraza, baina benetan uste dugu zuek primeran egin ahalko duzuela. Gainera, ondo egin ezker, sari bat lortuko duzue. Hau guztia aurrera atera dadin, Miren jarri dugu lan honen buruan, espero dugu berarekin elkarlanean aritzea guztientzat jarduera aberasgarria izan dadila.

Zuen erantzunaren zain,
Mariturriko zuzendaritza taldea
Eskerrik asko!



3. Eranskina. Hasierako eta amaierako ebaluazio dianaren fitxa.



IZENA: _____ DATA: _____



- 1.-Ipuinak interesgarriak iruditzen zaizkit.
- 2.-Ipuin ezberdinak ezagutzen ditut.
- 3.-Talde lanetan ondo moldatzen naiz.
- 4.-Neure buruarengan konfiantza daukat.
- 5.-Txikiekin ondo lan egin dezaket.
- 6.-Ipuin kontaketek nola funtzionatzen duten badakit.
- 7.-Ipuinak garrantzitsuak dira.
- 8.-Motibatuta nago.




4. Eranskina. Ikasle baten hasierako eta amaierako ebaluazio diana.




5. Eranskina. Hasierako eta amaierako ebaluazio dianaren irizpideetatik ateratako grafikoak.


1.-Amaiera




1.-Hasiera




5.-Hasiera




5.-Amaiera




7.-Hasiera




7.-Amaiera



8.-Hasiera



8.-Amaiera



6. Eranskina. Ipuin kontaketen tailerra egiteko fitxak.

TALDEAREN IZENA: _____ DATA: _____

EZINBESTEKOAK IPUIN KONTAKETAN

ZERTAN DATZA IPUIN KONTAKETA?

NOLA ABERASTU IPUIN KONTAKETA BAT?

zer izan behar dugu kontuan

- 1.- _____
- 2.- _____
- 3.- _____
- 4.- _____
- 5.- _____

	1	2	3	4	5
IZENA:					
IPUINA:					
IZENA:					
IPUINA:					
IZENA:					
IPUINA:					

7. Eranskina. Ikasleek ipuin kontaketa praktikatzerako orduan betetako fitxak.

TALDEAREN IZENA: Benia DATA: 16/02/2024

EZINBESTEKOAK IPUIN KONTAKETAN

Gurutz adarrena, irakurmena, abantza, irakurmena.

Ipuin erabilera, Ipuin antza, irakurketa, Diberdagarria.

erabazteko, itxera, Kontaktu bisaketa, Araketa merkatua.

irabazteko, erabazteko, irakurketa, irakurketa

Erabazteko, Araketa merkatua

ZERTAN DATZA IPUIN KONTAKETA?

Ipuin bat kontaketa itzalean, eta

erabazteko.

NOLA ABERASTU IPUIN KONTAKETA BAT?

Ipuin irakurketa, bukatzen

erabazteko bat egin.

Diberdagarria irakur.

zer izan behar dugu kontuan

- 1.- erabazteko.
- 2.- irakurketa.
- 3.- Diberdagarria irakur.
- 4.- Erabazteko.
- 5.- irakurketa bisaketa.

	1	2	3	4	5
IZENA: <u>Xenia</u> IPUINA: <u>Irakurketa</u>	😊	😊	😊	😊	😊
IZENA: <u>Unax</u> IPUINA: <u>Irakurketa</u>	😊	😊	😊	😊	😊
IZENA: <u>Sabin</u> IPUINA: <u>Irakurketa</u>	😊	😊	😊	😊	😊
IZENA: <u>Maria</u> IPUINA: <u>Irakurketa</u>	😊	😊	😊	😊	😊

TALDEAREN IZENA: BFR daa

DATA: 24/02/2021

EZINBESTEKOAK IPUIN KONTAKETAN

ahotsa adierazpena ipuin aplofosa
nota interesgarria musika lasaitasuna
ahozkatu izatea bihurtu erretu
isiltasuna, errespetua, arnasketa,
ortografia, gogoak.

ZERTAN DATZA IPUIN KONTAKETA?

Uneak eta irakasleak
entretentzen jarasak ezin
errespetua euki.

NOLA ABERASTU IPUIN KONTAKETA BAT?

akzioan Chispa eta Sentidua jarasak

zer izan behar dugu kontuan

- 1.- isiltasuna
- 2.- lasaitasuna
- 3.- Tonua
- 4.- Errespetua
- 5.- Dibertigarria

	1	2	3	4	5
IZENA: <u>LITER</u> IPUINA: <u>ZARPI AIZVORAK</u>					
IZENA: <u>RYAN</u> IPUINA: <u>EL PATITO</u>					
IZENA: <u>ZIWEB</u> IPUINA: <u>LAS</u>					
IZENA: <u>ARATZ</u> IPUINA:					

8.Eranskina. Ikasleak ebaluatzeko errubrika.

Taldea: 6.1

	Inplikazioa	Errespetua	Autonomia	Jarrera	Komunikazioa	Motibazioa	Sormena	Euskara	Ahozko gaitasunak
1.-									
2.-									
3.-									
4.-									
5.-									
6.-									
7.-									
8.-									
9.-									
10.-									
11.-									
12.-									
13.-									

Egokia		Ondo		Kili-kolo		Gehiago landu behar da	
--------	---	------	---	-----------	---	------------------------	---

9.Eranskina. Autoebaluazioaren fitxa.

TALDEKO AUTOEBALUAZIOA

Taldearen izena: _____

1.- Hobetzeko 2.- Kili kolo 3.- Ondo 4.Oso ondo 5.Bikain

Euskaraz hitz egin dugu.	Bakoitzak bere lana eta ardurak bete ditu.	Errespetuz lan egin dugu.	Denok parte hartu dugu.	Jarrera positiboa izan dugu.
--------------------------	--	---------------------------	-------------------------	------------------------------

Saioa: _____ Data: _____



Arazo edo ostoporen bat izan duzue? Izan baduzue azaldu zer gertatu den:

Nola sentitu zarete?

10.Eranskina. Ikasleek egindako autoebaluazioak.

TALDEKO AUTOEBALUAZIOA

Taldearen izena: Urdina

1.- Hobetzeko 2.- Kili kolo 3.- Ondo 4.Oso ondo 5.Bikain

Euskaraz hitz egin dugu.	Bakoltzak bere lana eta ardurak bete ditu.	Errespetuz lan egin dugu.	Denok parte hartu dugu.	Jarrera positiboa izan dugu.
--------------------------	--	---------------------------	-------------------------	------------------------------

Saioa: 2 Data: 2023/02/21

Arazo edo ostoporen bat izan duzue? Izan baduzue azaldu zer gertatu den:
Bai, Kevin ez du parte hartu lanean.

Nola sentitu zarete?
Melinda: Hesperie Kevin ez duela parte hartu.
Adem: Ondo
Kevin: Puzka bat goiztegi

TALDEKO AUTOEBALUAZIOA

Taldearen izena: Beltza

1.- Hobetzeko 2.- Kili kolo 3.- Ondo 4.Oso ondo 5.Bikain

Euskaraz hitz egin dugu.	Bakoltzak bere lana eta ardurak bete ditu.	Errespetuz lan egin dugu.	Denok parte hartu dugu.	Jarrera positiboa izan dugu.
--------------------------	--	---------------------------	-------------------------	------------------------------

Saioa: 7 Data: 2023/02/21

Arazo edo ostoporen bat izan duzue? Izan baduzue azaldu zer gertatu den:
Bai bat baina ez du izan oso gaitzeskerak

Nola sentitu zarete?
ondo eta gustara

TALDEKO AUTOEBALUAZIOA

Taldearen izena: BERDEA

1.- Hobetzeko 2.- Kili kolo 3.- Ondo 4.Oso ondo 5.Bikain



Euskaraz hitz egin dugu.	Bakoltzak bere lana eta ardurak bete ditu.	Errespetuz lan egin dugu.	Denok parte hartu dugu.	Jarrera positiboa izan dugu.
--------------------------	--	---------------------------	-------------------------	------------------------------

Saioa: 3 Data: 21/04/23

Arazo edo ostoporen bat izan duzue? Izan baduzue azaldu zer gertatu den:
Ez

Nola sentitu zarete?
Gaur egon gara entsegarria

11. Eranskina. Eskola-liburutegia.



12. Eranskina. Gamifikazioaren eredu.



13.Eranskina. Gamifikazioaren bitartez lortutako saria, gailletak egitea.

